



BETI IDAZTEN

JOXEAN AGIRI. AZI ALDITIK DABET KENTON ETA LEBURU ARTEAN

ARKEOLOGIA ▶ Antxieta taldearekin ibilaldia



San Juan Bezpera

- 
- agirre' oparidenda
 - ana mari egaa jantzi denda
 - azkue' jantzi denda
 - gemma kinkilidenda
 - iturralde iturgintza
 - furundarena oinetakoak
 - gotain lurindegia
 - jone' eta maikar este'rika zentrua
 - jostal'ki kirolak
 - lidia jantzi denda
 - martina isasti jantzi denda
 - natura belardenda
 - torrealday aholkularitza
 - urrestilla jantziak

egin zaitez bazkide - Tel 943 81 08 95

Hauteskundeak



Lagunarekin topo egin nuen, hauteskunde prozesua hasi gabe zegoenean. Orduan zinegotzi kargua zeukan.

–Jarraitzen al duk?

–Bai. Zerrendatan hor joango nauk, behintzat.

–Irteteko moduan? Zenbagarren?

–Zazpigarren.

–Justu samar, orduan!

–Ziur! Orain hamar ditiagu!

Isildu egin nintzen. Berak orain arteko egoe-

ra du buruan kontuak egiteko. Nik, aldiz, erakundeetatik kanpo utzi izan duten ezker aber-tzalearen zerrendaren bat izango delakoan egiten ditut kontuak.

Ustez, egoera berbera da biontzat. Baina ez dugu egoera hori berdin bizi.

Batzuk polizia ondoan izanda babestuago sentitzen dira. Ni ikaratu egiten naiz. Eta guardia zibilak baldin badira, susmagarritzat hartuko luketen ezinegon erabatekoa sortzen zait. Zer egingo diogu!

Nire laguna zerrenda guztiak onartzearen alde izango dela uste dut. Baina, hala izan gabe ere, egoera normal batean bizi da.

Ni askatasunik gabeko gizartean sentitzen naiz. Ezin dut pentsatzen dudana esan. Eta nire pentsamenduak ez dira zilegiak. Kateatuta naukate.

Hau idaztean oraindik ez dakit laguna aukeratu izan den ala ez.

Mundu berean, baina mundu diferenteetan bizi gara.

uztarria

[u]iritzia]

UZTARRIAREN DATUAK ▶

Argitaratzailea. Uztarrria Azpeitiko

Kultur Koordinakundea

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefono eta fax zenbakia.

943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 85.a (2007ko ekaina)

Urtea. IX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Web orria. www.uztarria.com

Diseinua. **EREGI**

Publizitatea.

▶ 699 64 66 01

▶ uztarrria@uztarria.com

Bazkidetza-Harpidetza. 15 03 58

Tirada. 2.500 ale

Inprimategia. Lizarra Grafikak

Azaleko argazkia. Enekoitz Esnaola

Oharra. Uztarriak ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzukizunik



[u]mamia]

12 Fototeka. Azpeitiko

Argazki Elkartekoak irudi zaharrak biltzen ari dira. Fototeka sortu nahi dute 2010erako.

15 Klik. Arkeologia Taldeko kideen lan egun batean izan da Uztarrria.**20 Agirre.** Joxean Agirre idazle eta kazetariarekin solasean bere ibilbideaz.

[u]jakiteko]

26 Futbola. Ekainean hiru futbol txapelketa izango dira herrian: 24 ordukoa, anaiartekoa eta emakumeena.

[u]euskara]

36 Neurketa. Mikel Balentziaga Kontseiluko kidea udalen Hizkuntza-politikaren Neurketan Azpeitiak ateratako emaitzez aritu da.

**UZTARRIA AZPEITIKO HERRI
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK** ▶
(erakunde publikoak)



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Enbido ▶



Koldo Aldalur

Gure eguna

Zin dagizuet artikulu hau idazten jarri baino lehen arnasa sakon hartu dudala eta saiatuko naizela gauzak gertatuziren bezala kontatzen.

Joan den hilaren bosta, goizeko hamarrak jo berriak. Abiatu naiz bizikletan Azkaraten gora, Elgoibartik Azkoitira. Derrepente, estreinako bihurgunean gazte kuadrila batek atera nau ahaleginak sortu ohi didan lo-kuluxkatik.

–Fenomeno –pentsatu dut–, aldapa errazago igoko dut hauen laguntzarekin. Rallysprintak eta festarako gogoak bildu ditu maldetan.

–Egintzazu kaballito bat!– dio batek.

–Derrapatu, mesedez!– besteak.

Irribarer batekin erantzun diet, baina oso gutxi iraun dit umoreak. Hurrengo bihurgunean kotxe bat bide erdi-erdian dago eta, parean pasatzean, sortzen duen arriskuaz ohartarazi diot. Txferrak begiratu zorrotza du, erasokorra. Hitzik ez. Berrehun bat metro aurrerago, berriro eritmoa hartu nahian nabilela, auto zarata ikaragarria entzun dut nire atzealdean. Bide erdian zegoen hura nire gainera propio datorrela iruditu zait. *Atodaletxe* belarri ertzetik pasatu eta nire muturraren aurrean tronpo bat oparitu dit. Gainera, ez dakit kotxeak ez ote dion alde egin, eta 'paratxokesa' nigandik zentrimetro gutxira geratu da. Nork agintzen duen garbi dago: berak berrehun zaldi ditu; ni ez naiz ezer.

▶ **EZTABAIDA.** Oraindik lau kilometro falta dira gailurrerako, eta emozio asko. Gaur goizean kotxeak erotuta dabilta. Beno, kotxeak ez, barrukoak baizik. Ezin dut gehiago eta infernuko txikitoa txardango eta guzti ikusi balu bezala zetorrenari, nire bizia arriskuan ez jartzeko erregutuz, eskua altxatu diot. *Akabokristo!* Geratu du kotxea, munduko hauts denak harrotuz, jo du *martxatrasa*, eta hasi da eztabaida. Hitzez hitz:

–Zer ostia ari haiz eskua altxatuta?

–‘Zer ostia?’ Ba al dakik ze *belozidadetan* hatorean?

–Ez hadi hasi potroak ikutzen! Kulpa hirea dek, horrelako egun batean bizikletarekin hemen ibiltzeagatik...

–Baina ez al dago ba bidea irekita guretzat ere? Karrera arratsaldeko hiruretan duk eta goizeko hamarrak pasatxo dituk...

–Bi ostiako merezi dituzue. Ez al dakizue gaur gure eguna dela?

▶ **ONDORIOAK.** Beldurra, *letxetxarra* eta presak eraginda, inoiz ez ditut falta zaizkidan kilometroak azkarrago igo. Eta berriro arnasa sakon hartuta egokiak jotzen ditudan hainbat ondorio:

–(Umorerik galdu gabe) Urtean egun batean, rallysprint egunean, kotxeek, arau logiko guztiak apurtzeaz gain, txirindulariak harrapatzeko esku-bidea dute. Ondorioz, Aitaren Eguna edo Langilearen Eguna instituzionalizatu diren eran, beste egun batean kamioek kotxeak txikitu ahal izan ditzatela, beste batean bizikleta zaleek oinezkoak zanpatu, eta horrela egutegia osatu arte. Hori bai, dagokion egunean bakarrik, arauak errespetatuz!

–(Serioxeago) Seguru nago guztiz ezberdindu behar direla hainbat antolatzaile arduratsu eta horrelako rallyetan parte hartzen duten gidari gehienak batetik, eta zainak balbulinaz eta frustrazioz beteta dituzten hainbat astapotro, bestetik.

–(Erabat serio) Ez da onargarria Ikastola bezalako erakunde batek horrelako rallyak antolatzea eta babestea. Ikastolaren oinarrian dauden baloreen aurkako ekintzak direlako. Kirola, egiteko delako, eta ez bide bazterretik ikusteko; ingurumenari kalte egiten diotelako; sortzen den dirutza baino askoz garrantzitsuagoa delako gazte eta ez hain gazteen osasun mentala. Badakit antolatzaileen ahalegina ordaintzeko dirurik eta esker onik ez dagoela, baina zerbait pentsatu beharrean dira.

Yoga eta kontrol mentala beharko ditut, inork ez didalako kasurik egingo, baina ziur nago asko garelako herrian erabat nazkatuta gaudenok Azpeitian denok rallyzaleak garelako entzuteaz. Hori gezurra da.

HILEKO GALDERA ▶

...eta inkesta bat antolatuko bagenu?

AZPEITIKO

6 harategi hauetan bakarrik



EUSKAL OKELA



"Bertan jaio eta hazitako ganadua.
KALITATEKO okela nahi baduzu,
GUREAN aurkituko duzu!"

Beloki
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62
AZKOITIA
Jose Artalea, 21 Tel.: 943 151392
AZPEITIA



bertako okela

HARZUBIA, 26 D
TEL. 81 60 25
ETXEKOA 15 00 03
AZPEITIA



Harategi
Especializatua

Arana Kalea, 14
Urrut.: 943 81 1015



EDUARDO BÉRASATEGUI
Harategi eta Zerritegia
Euskal Herriko Haragirik Onenak

San Inazio Kaleko 12an
Urrut. 943 81 14 98



HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA

ETXEKO URDAIKIA

FORU HIBILBIDEA 4
TFNOA 81 15 94

AZPEITIA



KALITATEZKO
HARAGIA

BUSTINZURIKO ERREBALA, 8
TF-NOA: 943 811671



Olatz Prat

Adopzioaren abentura

Joan den maiatzaren 1ean irakurri nuen Txinak legeak gogortu dituela adopzioari dagokionez. Horren arrazoia da herrialde horrek urtean bi mila eskaera baino gehiago jasotzen dituela eta lan erritmoak urtean 700 bat eskaera soilik kudeatzeko denbora ematen diola. Horregatik, filtro batzuk jartzea erabaki du. Irakurri nuenaren arabera, hango haur bat adoptatu ahal izateko gizon batek eta emakume batek osatutako bikotea izatea beharrezkoa da, gutxienez bi urtez ezkontuta egotea eta aurretik ezkontuta izanez gero bost urtez ezkontuta egotea. Biek 30 eta 50 urte arteko adina izatea ere eskatzen dute, batxilergoa edo maila bereko titulua edukitzea eta bai fisikoki bai mentalki osasuntsu egotea. Hori lehen filtro multzoa. Harrigarriena, ondorengoa: ezingo dute eskaririk egin homosexualek, bananduek, ezkonberriek, langabetuek, 50 urtetik gorakoek, ezkongabeek eta pertsona gizenek (bai, gizenek).

Beraz, orain 2005eko eskaerak kudeatzen badabilta eta hortik aurrerakoek izugarrizko oztopoak izango dituzte.

▶ **PANORAMA BELTZA.** Ezagutzen dudan neska bikote batek herrialde horretan adoptatzeko eskaera egin zuen. Orain, zeuzkaten esperantza urriak agortzeaz dituzte, ez da harritzekoa. Jakitera eman zidatenez, ordea, begiak Txinan jarri aurretik Euskal Herriko haur bat adoptatu nahi izan zuten. Eta hemengo instituzioetan aurkitu zuten panorama ikusita aldatu zituzten planak. Imajinatu.

Nazioarteko adopzio baten prozesua bi edo hiru urte ingurukoa bada, gutxi gorabehera, adopzio nazional batek zortzi edo bederatzi urte iraun ditzake. Baina zergatik gertatzen da hau? Espainiako Estatuan haur bat adoptatzeko ez da nahikoa haur hori harrera zentro batean egotea. Beharrezkoa da gurasoek haurra abandonatua izatea, gurasoak zein diren jakitea, haien baimena izatea eta haurra-
ren kustodiarik ez izatea edo galtzeaz edukitzea. Beraz, nahiz eta haur bat zentro batean egon, ezin da adoptatu, familia bat dutelako eta zentro horretan denbora batez soilik daudelako. Familiarik ez

duten haurrak, bestalde, ezin dira adoptatu, aipatutako baldintza horiek betetzen ez direlako.

Estatuan erabiltzen ari den metodoa adopzioaz aurretiko harreraren metodoa da. Abentura horretan murgiltzera ausartzen direnek pauso batzuk jarraitu behar dituzte: lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuetara joan eta tramiteen argibideak argitu; ondoren, galdeketa bati erantzun eta Gizarte Zerbitzuetara bueltatu; hori egindakoan, egokitasun balorazio bat egingo du instituzioak. Harrerarako egokia izanik ere, ez dizute adopzioa bermatuko.

▶ **PROZESU LUZEA.** Dozenaka dokumentu, elkarrizketa eta inspektzioren ondoren, instituzio arduradunak epaia argitaratuko du. Eta hori idazteko unean ezin dut saihestu erromatarrek zirkoan imajinatzea, enperadoreak gerlaria zigortu edo bizitzeko baimena ematen dionean, eskua aurrera bota eta hatz lodia gora... ala behera eramaten duenean. Instituzioaren erabakia aldekoa ala kontrakoa izan daiteke. Kontrakoa bada, orain arte egindakoak ez du ezertarako balio izan, eta aldekoa bada, aukeraketa zerrenda batera pasatuko dira.

Zorte pixka batekin hilabete batzuetan haur bat hartu ahal izango da baina, adopzio bermaturik ez dagoenez, handik urte batzuetara hainbeste desio eta maite izan duzun haurra gal dezakezu.

Gauzek ez didate enkajitzen. Ongizate estatu batean azken helburua ongizatea da, herritarren ongizatea. Ezin da onartu haurrik gabeko gurasoak egotea eta, batik bat, gurasorik gabeko haurrak egotea. Ezin da onartu alboko herriko haur bat adoptatzeko prozesuak hamar urte irautea. Ezin da onartu gauzak oraindik horrela egotea. Ezin da onartu politikariek garrantzitsuak diruditen gauzei gehiegizko garrantzia emateagatik, berez askoz garrantzitsuagoak diren gaiak ezkutuan uztea.

▶ **INSTITUZIOEN JARRERA.** Alde batetik, hemengoek kanpoko haurrak adoptatzeko zailtasunak dituzte. Bestetik, hemengoek hemengo haurrak adoptatzeko zailtasunak dituzte. Eta gauza bat argi dago, kanpotik ez dira etorriko hemengo haurrak adoptatzera. Hori al da ongizate estatu baten alde lan egitea? Instituzioen hatz lodiak gora... ala behera, nora egiten duen zain gaudela, gurasorik gabeko haurrak eta haurrik gabeko gurasoak gero eta okerrago daude.

HILEKO ESAERA ▶

Ezin da indioilarra bezala lan egin eta arranoa bezala aireratu

garenak X2 izateko

lortu ezazu
hitzaren harpidedun
berri bat

eta **opari bana**
jasoko duzue



aukeratu
gustukoen
duzun oparia*

*harpidedun berria ekainaren 10a baino lehen
ekartzen dutenentzat.

BEZERO ARRETA ZENBAKIA:

902 820 201

astegunetan: 08:30 - 20:30
larunbatetan: 09:00 - 13:00

urria kostako

hitza



J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g
Urretxu 20700
Tel./Faxa: 943-721413/721403
jmiparragirre@edunet.es
www.iparragirre.net



IPARRAGIRRE
INSTITUTUA

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D eredueta

TITULAZIOA

- Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

IRAUPENA

- 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den
prestakuntza barne (400 ordu)

LANBIDE ETORKIZUNAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatueta
- Zaharren egoitzetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 7ra (biak barne)

Matrikula: ekainaren 29tik uztailaren 6ra (biak barne)

Moxpit & Txilbor ▶ Xanti Rodriguez



Hau ▶



Aitor Zinkunegi

‘¿Y ahora qué?’

Hauteskundeak paseak dira, bukatu da kanpaina eta lanerako ordua da. Ez dakit zein izan diren emaitzak, baina bai zein izan diren kanpainako mezuak: elkarriketa, garapen jasangarria, espekulazioaren amaiera, herritarren parte-hartzea... eta orain zer?

Izarrako berdegunea txikitzen ari zarete eta alde zaharra hiltzen ari da. Hori al da zuen garapen jasangarria? 200 BOEren zozketa eta 500 azpeitiarren eskaera. Hori al da gazteei etxebizitzak bermatzea? 300 gazte baino gehiagok ez dute lortuko eta beste pila batek ez ditugu zozketan sartzeko baldintzak ere betetzen. Eta orain zer? Zer duzue guri eskaintzeko? Eta nola bermatu behar duzue herritarren parte-hartzea? Eta elkarriketaz bakea PPrekin hitzartuta lortu behar al duzue?

El congreso de los ratones entzunez, ilegalizaturiko zerrendei bizkar emanez osatuko diren erakundeak etorri zaizkit burura. Ondoren, kutsaturik omen dauden eta PPrekin hitzartzeko prest dagoen horrek, “*garrapata*” deitu dituen horiekin oroitu naiz, ‘*somos los nietos de los obreros que nunca pudisteis matar*’ kantatzean. Eta azkenik ‘*siembra y siembra y siembra que te siembra*’ jarraitzen duen Ivánek, Gorronovicht kondeari zergak ordaintzeari uzteko ordua heldu delako!

80ko hamarkadako La Pollaren letrek inoiz baino zentzu handiagoa hartzen dutela pentsatzen hasi naiz. Zorionez, bada aldatu den zerbait, ‘*no somos nada*’-tik, mugimendu bat izatera pasatu garela.

‘¿Y ahora qué?’, dio Evaristok bozgorailutik; horixe diot nik ere. Esandakoa betetzeko ordua da eta borondaterik ez duenari kontuak eskatzekoa. Sudur puntan jarritakoa egin eta gauza normalizat hartzeak bukatu egin behar du. Hauteskundeetan agindutakoa ez betetzeak ezin du doakoa izan. Gazte Astea’07arekin, aro berri bat atera doa...

Galdetuz ▶

San Juan bezperan zerbait berezia egiten al duzu?

ANA SEGUROLA ▶

azpeitiarra



“Afalostean elkartzen gara familiakoak eta sua egiten dugu. Beti izaten da zerbait erretzeko. Lehen, desioak ere pentsatzen genituen”.

KARMEN IRIBEKANPOS ▶

bergatarra



“Garai batean Goi Kabi soziedadean egiten genuen sua. Denetik erretzen genuen: trasto

zaharrak... Auzoko sua ikustera joatea ere gustukoa dut”.

PEDRO AIZPURU ▶

urrestildarra



“Lehen, familia guztia elkartzen ginen. Urrestillan arbolaren inguruan egiten den ekitaldia

ere asko gustatzen zait. Gaztetan suaren gainetik salto egiten genuen”.

ENKARNI ARRIOLA ▶

azpeitiarra



“Sanjuan su ikaragarria egiten dugu baserrian. Etxeko jendea bildu eta traste zaharrak

botatzen ditugu sutara: altzariak, kartoia, egurra... Urrestillara ere joan izan naiz sua ikustera”.

Apunteak ▶

GORA.

Hizkuntz Eskubideen Eguna izan zen maiatzaren 6an Azpeitian. Aldarrikapen eguna. Beharrezkoa delako oraindik. Giro polita izan zen, gainera.

BEHERA.

Maiatzaren 26an izan zen presoan aldeko Elkartasun Eguna herrian, baina egun batzuk lehenago arte ez zieten baimen ofizialik eman. Halako gai delikatu eta garrantzitsu batean senideek-eta ezin dute horrela egon.

GALDERA.

Bidegorriaren zati bat egin dute, Garmenditik Sanjuandegiko errotondara. Inor ikusi al duzu bizikletan?



Bidegorria. SINADURA

Oharra. Uztarriak aldizkariaren 84. zenbakian atal honetako galderan zioen ea noiz jarriko duen Azpeitiko Udalak bake foroa. Udalak orain esan du otsailaren 7an bildu zela lehen aldiz foroko talde bultzatzailea.

Ba al dakizu... ▶

...Sanjuandegiko Festa Batzordeak eta auzoko tabernarien Bide-Ona elkarteak bakoitzak bere aldetik Vostok musika taldea ekartzea erabaki duela eta egun gutxiren buruan Vostok-ek bi aldiz joko duela bertan?

Zer dio? ▶ Ina Sagarzazu (Azpeitiko Kirol Patronatuko zuzendaria)

Estali gabeko igerilekuak sei urte

Azpeitiko estali gabeko igerilekua 2001eko uztaillean zabaldu zuten; beraz, sei urte beteko ditu aurtun. Urteotako balorazioa positiboa da, jendearen erantzuna oso ona izan baita. Aurtun ekainaren 9an zabalduko dugu eta irailaren 16ra arte zabalik egongo da egunero, 11:00etatik 20:00etara.

Udaren eguraldiak eragin handia izaten du jendearen erabakiengan. Oro har, uztaila izaten da jende gehien joaten den hilabetea; 16:00etatik aurrera, batik bat.

Estali gabeko igerilekua zabaldu ondorengo lehen bi urteetan, 20.000 pertsona inguru pasatu ziren handik denboraldiko; 2003az geroztik, urtero 40.000 pertsonatik gora izan dira igerilekuan. Jende gehien joan zen urtea 2003. urtea izan zen. Urte hartan txapapotea iritsi zen zenbait hondartzetara eta, ondorioz, 48.235 pertsona pasatu ziren igerilekutik.

Aurtengo denboraldiari begira, berrikuntza batzuk jarri ditugu abian. Lokatza pilotzen zen belarguneko zenbait tokitan eta, ondorioz, ura zelaira ez joateko, kanaleta moduko bat jarri dugu igerilekuaren ia perimetro guztian. Bestalde, igerilekuko lau sarbideetan dauden dutxetako pultsadoreak kendu eta zentsore bidezko sistema bat jarri dugu martxan.

Eguraldiak eragin handia dauka igerilekura etortzen den jendearengan. Zabaldu dugunetik, bi aldiz itxi behar izan dugu igerilekua –2002an eta 2006an–, araututakoa baino jende gehiago zegoelako. Jendeak igerilekuaren mugaz kontzientziatu egin behar du. Instalazioak duen edukieraren eta legegaren arabera, 1.350 pertsona egon daitezke gehienez igerilekuan. Beraz, legeak araututakoa baino jende gehiago dagoen une haietan igerilekurako sarbidea ixtera derrigortuta gaude.

Lider izan nahi duenak...

Aldizkaria eskuetan edukitzen dugunerako, hauteskundeak pasatuta izango dira eta alderdi bakoitzak berea jasota izango du. Gure herrian, zorionez, aukera denak izan dira lehian eta bakoitzak izango du bere ordezkaritza Udalean. Herritarrok bete dugu gure eginbehar nagusia botoa emanez, eta gure hautatuekin gero ere izango dugu kolaboratzeko aukera, nahi izanez gero.

Orain, ordezkaritza horren arabera osatuko dugu Udala eta bertako gobernua. Lanerako ordua da: batzuk gobernatzen, besteak oposizioan, eta denak agindutakoa bete nahian. Ekainean gaude eta berehala etorriko zaigu udara, eta ondoren udazkena. Bitarte horretan, ordea, gure alkateak eta zinegotziek zenbait erabaki hartuta izango dituzte bere antolaketa eta batzordeetako partaidetzak finkatuz.

Edozein motako taldea osatzen denean, betiere bakoitzaren nortasuna gordeta, helburuak bete ahal izateko elkarren arteko 'armonia' eduki behar da. Eztabaidak eta iritzi kontrajarriak izan arren, liderrak zubiak ipini behar ditu; ibaiak dakartzan ur nahasiek ez harrapatzeko bidea eskaini behar du.

Erraza da esatea, baina sarritan ez da hain erraza betetzea. Hala ere, herriaren onerako, denen aldeko saiakerak egitea espero dezagun. Etapa berri bat, legealdi berria, hastera doa. Gainera, esaten denez, erabakigarria izango da gure Euskal Herriak bizi duen gatazka konpontzeko, bakea lortzeko eta kontsulta bidez baieztatzeko gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugula. Bakoitzak, gauden tokitik, berriz ere izango dugu ardura eta zubiak alde bietan behar duen zutabea sendotzeko aukera.

Lider izan nahi duenak... zubiak izan behar du. (Galesko atsotitza)



◀ Eta beste



Maria Jesus Aranburu



A **biadura** H **aundiko** T **ratua**



Aurrera bolie?



Igor Aranbarri

Kaixo, gizon! Azpeitiko mugetatik at, Ingalaterrako lurretan ibili nauk oraingoan, eta, beste behin, Azpeitiaren txikitasunaz jabetzeaz aparte, beste bizitzeko modu bat badela ikusidiat. Badakik nolakoak garen azpeitiarrok, gizakia- ren sorleku gure auzotxo hau dela pentsatzen diagu sarri, baina han jendeak nongoa naitzen galdetzean alferrik zuan gure herria aipatzea; Donostia ere ezezaguna izanik askotan, Bilbokoa naizela esateraino ere iritsi ninduan. Eta ondoren badakik, Espainia eta Frantziaren tartean kokatuta gaudela azaltzean, aurpegi arraroa ikustea baino ez zuan lortzen. Orduan, Xabi Alonso aipatu eta

denek "aaahhh!" batekin erantzuten zitean. Zerbezak eta futbola, ez ditek beste balorerik goialde horretan.

Gizarte gaixotu bat topatu diat, egunero jendea mozkortuta ikusten huen edozein ordutan; bakarrizketan, begirada galduz kalean noraezean pertsonaia gehiegi; gau hotzean ipurdia bistan neskak dardarka ingurukoen atentzioa erakarri ezinik. Benetan, alde ederrean, naturalago bizi gaituk hemen. Bizimodu horrek ondorio latzak dakartzalakoa nagok, gizarte aurreratua omen duk haiena baina, gure aurretik badoaz, atzean gelditzea hobe. Egun haietako batean autobusean nindoala, 30 urte inguruko

neska bat ikusi nian lau haurrekin: umeak zein baino zein ozenago builaka, bi pisuko autobus hartan gora eta beheara, baina ama, okerrago, garrasi betean, txikiei kolpeka...; nekez iraun nian nire geltokiraino. Zalapartaren osteko isilean, gizarte ero horri leporatu nioan famili horren zoramena.

Duela gutxi, Azpeitiko igerilekuan, nahiko igeri egin ostean, aldageletara joan ninduan bapo erlaxatuta. Bertan hama-bost bat umerekin egin nian topo, han zeudean, etengabeko zalapartan, animalari gosetien pare...; Ingalaterrako autobusa etorri zitzaidan burura. Gu ere haiek bezain 'aurreratuak' ote gaude? Ez nitek nahi...

Gauden bezala, ondo



Kepa Urbietia

Igor, maitea! Hara kasualitatea zer den! Neu ere Ingalaterran izan nauk orain gutxi. Ederra hukek hemen ikusi ez eta han topatzea. Hemen kafe bat hartzeko betarik ez eta han pintak hartzea. *Enfin!*

Liverpoolera joan gintuan zazpi lagun futbol partida bat ikusteko aitzakian. Nik han ikusitakoa eta hire deskribapENAK bat zetoze. Hala ere, argi eta garbi kontra egingo diat aipatu duan kontu batean: neskak ipurdi-bistan eta atentzioa erakarri ezinik? (hire begiek bekatu egin zitean, behintzat). Hori baduk hire ondorioa, Liverpoolen ez haizeala egon ondorioztatzen diat. Kontatuko banu! Parrandara atera ginene-

an, zazpi lagun horien berririk ez nian izan. Ez, ez. Ez ondoegi pentsatu. Alboan nitian, baina lerdeak hitz egiteko gaitasuna kentzen ziean.

Nik handik bueltan beste burutazio batzuk ibili ditiat buruan. Beste gizarte bat nian buruan. Gurea, alegia. Konparatu gure amama eta ni. Amama urrunen izan den tokia Donostia izango duk. Beste herrialde guztiak infinitua dituk haren zat. Eta ni asteburu batean Liverpoolen izan nauk, besterik gabe. Gogoa eman eta egin. Gogoratzen abioiak aireratze-ko abiadura aldaketa egiten zuenean zer zirrara sortzen zuen? Nik ez. Ohitu egin nauk. Errespetua galdu zioat traman-

kulu horri ere, kotxeari bezala. Pentsa, azafatek bi aldiz isiltzeko eskatu zigutean larrialdi kasuetan jarraitu beharreko pausoak azaltzen ari zirenean. Hori ere ez diat askorik ulertzen. Adibidez, zertarako balio du uretako txaleko batek hegazkin batean? Erortzen baduk leher- tu egingo ez duk ba! Tira.

Begira zein ongi bizi garen Azpeitian: batzuk Costa Ricara surfa egitera, beste batzuk India ezagutzera, Greziako irletara bigarren aldiz joan nahi duenik ere bazagok... Abuztuko planez ari nauk, Igor. Non ditugu gure mugak? Gauza batzuetan haiek bezain aurreratuak gaituk. To azpeitiarkeria bat: edo gehiago, akaso.



argazki zaharrena NORK DU?

Azpeitiko Argazki Elkarteak herritarren irudi zaharren bila dabil. Herriko fototeka sortzea dute helburu

► Testuak: Maider Zendoia ► Argazkiak: Azpeitiko Argazki Elkartek utzita

Sarritan ez da behar bezala neurtzen herri baten ondare historikoak daukan garrantzia. Azpeitiko Argazki Elkarteko kideak, horretaz jabetuta, herriko argazki zaharrak biltzen ari dira. 1999an herritarrei deialdi zabala egitea erabaki zuten, plazako arkupeetan antolatutako erakusketak lortutako arrakasta ikusi ondoren.

Joxe Ramon Larrañaga eta Juan Joxe Agirre elkarteko argazkilaria afizionatuek beti izan dute irudi zaharrekiko zaletasuna. "Argazkilaritza esparru desberdinetatik landu daiteke, baina guri betitiki gustatu izan zaizkigu argazki zaharrak", dio Larrañagak. Haren

ustez, "horretarako erromantikotasun puntu bat beharrezkoa da".

► **BILKETA.** Dena dela, Imanol Elias historiaegileak egindako proposamenaren bitartez ekin zioten argazki zaharrak biltzeari. Eliasek liburu bat egin behar zuen eta, bertan argitaratu nahi zituen argazkiak moldatzeko, laguntza eskatu zien Argazki Elkartekoei. Pixkanaka-pixkanaka ekin zioten irudi zaharrak lortzeari. Horretarako, tokirik bitxienetara ere jo dutela onartzen du Larrañagak: "Etxe zaharrak hustu eta argazkiak agertzen direnean, batzuetan abisatu egiten digute". Izan ere,

Larrañagaren iritziz, "jendeak ez ditu behar bezala baloratzen lehengo argazkiak". Ildo horretan, Lapatz zaborteagan agertutako argazkiak ere jaso izan dituztela aitortzen du.

Dagoeneko 500 argazki inguru biltzea lortu dute; ia gehienak 1940-1960. urteen artean ateratakoak. Aurrera begira, herritarren kolaborazioa eskatzen dute. "Azpeitiarrei argazkiak uzteko deia luzatu nahi genieke, herriari geratuko zaion ondarea delako". Gainera, elkarteak herriko argazki zaharrena bilatzeko erronka hartu nahi du eta, horretarako, herritarren lankidetzara beharrezkoa dela badakite.

Motozaleak

Txirrindulari proba.

1958an ateratako argazkia da goikoa. Motozaleen atzean, eskuinean, Jose Antonio Albizuri *Zumaia* garajeko nagusia ageri da, eta haren ondoan, bere lagun Pruden. *Zumaia*-ren seme Jose Inazio Albizurik dioenez, argazkian agertzen dira, besteak beste, Iñaki Eizmendi *Txapel*, Joxe Eizmendi *Potxolo*, Bixente Etxeberria *Prakaundi* eta Rafael Zelaia. Saninazioetako txirrindulari proba batean atera ziren irudiko motozaleak.

► **HIRU URTE BARRU.** Argazki Elkartek 2010. urterako bildu nahi ditu irudiak. Larrañagak dioenez, "Azpeitiaren 700. urteurrena orduan izango da eta elkarteak herriari egin nahi dion ekarpen xumea izango da fototeka". Argazkiak bildu ondoren pentsatuko dute zer euskarritan kaleratu. Alde batetik, horiek DVD batean argitaratzeko asmoa dute; eta, bestetik, argazki bakoitzak atzean daukan istorioa azalduko duen liburua plazaratzea gustatuko litzaieke.

Hortaz, argazki zaharrak etxean dituen edonoren ekarpena ongietorria izango da Argazki Elkartearentzat. Eta Azpeitiarentzat.



Kasinoa

Tabernan kontu kontari.

Garai batean Goiko Kalen zegoen Kasino tabernan ateratakoa da ezkerreko argazkia (lehen Santo Domingo kalea zena). Ondorengoak ageri dira ezkerretik eskuira: Joxe Antonio Korta *Katran*, Gregorio Eizagirre *Txapasta*, Nikolas Egaña, Angel Larrañaga *Patxike Txikiyenekue*, Elosiagako Benteroko Xanti Bereziartua eta, azkenekoa, Ansolatarren bat izan daitekeen susmoa daukate Argazki Elkartekoek.



Uholdeak

Plaza urak hartuta.

Silvestre Otamendiren sendiak utzitako argazkia da. 1953ko urrian Azpeitian izandako uholdeek herriko Plaza Nagusian eragindako anabasa islatzen du. Argazkia udaletxeko teilatutik aterata dago, irudiaren behealdean hango teilak ageri baitira. Uholdeen indarra neurtzeko, kiosko azpiko komunak ikusi besterik ez dago, esate baterako. Era berean, azpimarragarria da irudian herriko azoka plaza zaharra ageri dela.



Urolako tren

Inaugurazio ekitaldia.

1926ko otsailaren 22a egun handia izan zen azpeitiarrentzat, Urolako Trena inauguratu zutelako. Alfonso XIII.a Espainiako erregea etorri zen, eta azpeitiar askok harrera beroa egin zioten. Argazkian, Perez Arregi Plazatik geltokira doan zubia ageri da, loreekin apainduta eta esker oneko karteletz josita. Kartel horietako batean, ondorengo irakur daiteke, gazteleraz: "Azpeitiko herriak Berorren Maiestate Erregea eta gainerako agintariak agurtzen ditu. Gora gure erregea!".

»

» AURELIA OTAMENDI ▶ Silvestre Otamendi Lasa argazkilari afizionatuaren alaba

“Loiola lorategirik gabeko argazkia bazuen gure aitak”

Silvestre Otamendi Lasa (Azpeitia, 1896) Otamendi bitxi-dendako nagusiak erlojuak saltzen zituen ogibidez, baina denbora librean argazkiak ateratzea gustuko zuen. Aurelia Otamendi haren alabak aitak ateratako argazkiak jaso ditu oinordetzan.

Nolatan hasi zen zuen aita argazkiak ateratzen?

Aitak argazkiekiko zeukan zaletasuna aspalditik dator. Ni txikia nintzenetik gogoraratzen dut hark argazkiak ateratzen zituela. Bitxi-denda 1916an zabaldu zuen, Azpeitian bertan, eta handik gutxira eskuratu zuen argazki makina; I. Munduko Gerraren ondoren-edo erosiko zuen, beraz.

Zer argazki mota ateratzen zituen?

Denetik. Nik gogoan ditut hainbat argazki bilduma: Olazko komentuarien eraberritze-lanak, Lasako zubia egiten ari zirenekoa edota

Loiola lorategirik gabe zegoeneko. Dena dela, gaur egun ditugun argazki gehienak familiartekoei ateratakoak dira.

Oraindik ba al dituzu aitaren argazki makinak?

Bai, oraindik ere gordeta ditut. Kamera bat ere bazuen eta filmakikustengenituen etxeko horman jarritako izara batean.

Zer material duzu gordeta?

Argazki asko ditut gordeta, baita kristalezko negatiboak ere. Negatibo horietako batzuk eman dizkiegu Azpeitiko Argazki Elkarteko kideei, haiek trata ditzaten liburu berri horretarako.

Familiako inork jarraitzen al dio Silvestre-ren afizioari?


Miguel Otamendi nire anaiak ateratzen zituen garai batean argazkiak. Hark ere afizio ikaragarria zeukan.



Lore Jokoak direla diote batzuek, mitina dela besteek...; bilketaren ondoren, ikerketa eskatuko dute argazki batzuek.



Espainiako Gerra aurreko argazkia da; mikeleteak ageri dira.



Orain arte lortu duten zaharrena da, 1889koa.

Fototeka

NON UTZI ARGAZKIAK? ▶ Azpeitiko Argazkilari Elkartea.

▶ Perez Arregi Plaza 1, 1. solairua.
▶ 943 15 06 34 telefono zenbakira deituta (Joxe Ramon Larrañagagatik galdetu).

Beste herrietan

Azkoitia.

Juan Jose Olaldekin egin eta Azkoitiko Udalak 2004an argitaratutako *Azkoitia iruditan* liburuak Azkoitiko XIX. eta XX. mendeetako historiaren berri dakar irudien bidez.

Zestoa.

Danbolinzulo Kultur Elkartek *Zuri beltzean bizi izanak* liburuak argitaratu zuen 2005ean. Zestoako gertakariak ekartzen ditu gogora liburuak.



giza arrastoen

ATZETIK

1966an sortu zuten Antxieta Arkeologi Taldea. Ordutik hainbat aurkikuntza egin dituzte; ezagunena, Ekaingo koba. Igandero irteten dira historiaurreko aztarnen bila. Uztarria haiekin izan da




PAZIENTZIA HANDIKO LANA.

Pazientzia handia eskatzen duen lana da arkeologia. Antxietakoek badakite hori. Orduak ematen dituzte leku bila, eta beste hainbat ordu zuloak egin eta lurra aztertzen, arrasto bila. Uztarriarekin egindako ibilaldian ez dute nahi esatea non ibili diren.

»

» SATORRA LAGUN.

Sator zuloetan azaldu ohi dira aztarnak. Halaxe topatu zuten leku hau ere. Mendian direnean beti behera begira ibiltzen dira, baita taldean ez direnean ere.



▲ HIRUGARREN SONDEOA.

Udazkenetik ari dira lanean eta hirugarren zuloa dute goiko hori. Antxietakoen iritziz, han bizitako gizakia ehiztari eta nekazari garaien tartekoa da.

▲ AIRE LIBREAN.

Azterketa gunea aire librean izateko aztarna kopuru nabarmena topatu dute: suharriak, kerramika... Baina bertako lurra azidoa denez, hezurrak, larruak... desegin ditu.

TOPATU DUTE ZERBAIT.

22. azalean ere topatu dute zerbait. Labanaz kontu handiarekin atera dute zulotik eta, urarekin garbitu ondoren, errazago ikusiko dute aztarna zer den.




KERAMIKA.

Keramika zati bat topatu dute. Garbitu, etiketatu eta gorde egingo dute. Ondoren, beste arrastoekin batera, adituei bidaliko diete azter dezaten.

KOORDENADAK HARTZEN.

Eskabazioetan ezinbestekoa da koordenadak hartzea, piezen arteko erlazioa ezartzeko. Hemen eskabazioa egin edo ez adituek erabakiko dute Antxietakoan arrastoak aztertutakoan.



Rodriguez marrazki egile

Jon Berdejo urteetan aritu da aldizkarian Iritzian marrazkilari, eta Xanti Rodriguez ariko da orain haren ordean.

Foru Aldundiaren diru laguntzak ▶



Uztarriaren aldizkariak eta liburuak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Uztarria Kultur Koordinakundeari 2007rako 15.100 euroko laguntza eman dio aldizkarirako, weberako, euskara jardueratako eta inbertsioetarako. **Uztarria herri aldizkaria.** 4.800 euroko laguntza.

Uztarria.com webgunea. 4.000 eurokoa.

Euskara sustatzeko jarduerak. 6.000 eurokoa (hitzaldiak, liburuak, Bai Euskarari Ziurtagiria, ohorezko bazkideak...).

Inbertsioak. 300 eurokoa.

Ekaina



KULTUR AGENDA ▶ Hilabetea.

Ekaina.

Banaketa.

Asteburu honetan.

Non. Herriko tabernetan eta toki publikoetan.

Tirada. Mila ale.

Argitaratzailea.

Uztarria Kultur Koordinakundea.

Zer dio? ▶ Uztarria Kultur Koordinakundea

Legealdi berriko erronkak

Izan dira udal hauteskundeak, eta karguak hartu ondoren hasiko da legealdi berria. Euskara, Komunikazioa eta Kultura arloetan, azkenaldiko erronka beraiekin hasi ere.

Guztien lanari esker (herriko elkarteak, herritarrek, udal alderdiak), hiru arlo horietan azkeneko urteetan aurrerapauso handiak eman dira. Esaterako, orain bederatzi urte arte ez genuen euskara elkarerik, udal euskara teknikaririk, euskararen normalizaziorako plangintzarik, herri aldizkariarik, eskualdeko egunkaririk, kultur etxerik, eragileen bilgunerik... Oso bestelakoa da gaurko egoera.

Baina ez da behar bezala egin aurrera. Euskara arloan, azkeneko legealdian, nahastea sortu da herrian Udalak bere ziurtagiria abian jarri zuelako, Azpeitian Bai Euskarari Ziurtagiria zegoen arren; Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren Aholku Batzordeko funtzionamendua, berriz, ez da egokia izan, Udalaren funtzionatzeko eragatik. Komunikazioan, Udalak trabak jarri zituen *Urola Kosta Hitza*-ren sorreran. Kulturean, Udalak Soreasu kultur gunea martxan jarri zuen, baina herriko ia talde den-denek egindako Kafe

Antzokiaren proposamena aintzat hartu gabe; San Agustinteko lanen martxa-eta ere ez doaz bide onenetik.

Euskara, Komunikazioa eta Kultura arloez lasai hitz egiteko proposamena egiten diegu legealdi berriko udal alderdiei, zertan asmatu den hausnartzeko, zer egin daitekeen ikusteko, lankidetzak topatzeko, bakoitzaren proposamenak kontuan hartzeko, ibilbideak errespetatzeko...

Zaila al da hori guztia lortzea? Ez dugu uste. Borondatea behar da, eta bilgune zabalen funtzionamenduan irekitasun handiagoa.

Dudarik ez azpeitiarrek eta herriko elkarteek ere zeresan handia izango dutela legealdi honetan ere. 1998an Uztarria Kultur Koordinakundea sortzean, haiek hartu zuten bestelako egoerara iritsi ahal izateko ekimena. Asko egin da, baina egitasmo batzuk erabat burutu gabe daude edo ez doaz bide onetik (euskararen normalizazioa, euskarako Aholku Batzordea, San Agustinteko dinamikoa eta parte-hartzailea, eskualdeko telebista...). Guztion lana da gauzak bideratzea edota lortzea.

egin zaitez bazkide UZTARRIAN

Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

▶ Perez Arregi plaza 1, beheka (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia
▶ uztarria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): **943 15 03 58** ▶ www.uztarria.com

IZEN-ABIZENAK ▶

NAN edo EHNA ▶

HELBIDEA ▶

HERRIA ▶

TELEFONOA ▶

E-MAILA ▶

KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

BAZKIDEAK ▶

Urtean. 27 euro.

Jasoko dituzu.

▶ Uztarria herri aldizkaria.
▶ Biografiak: *Joxe Takolo* eta *Imanol Elias*.

▶ *Euskarazko prentsa* eta *Azpeitia* liburua.

▶ *Loiolarik ez balitz* liburua.

▶ *Otsobeltz* liburua.

▶ *Urrestillako musika taldea* liburua.

▶ *Azpeitiarrak Espainiako Gerran* liburua.

▶ Erdi prezioan: *Mendi gida* eta *Azpeitiko efemerideak*.

HARPIDEDUNAK ▶

Ez du diruz laguntzen.

Jasoko duzu.

▶ Uztarria herri aldizkaria.

U

1.055

bazkide gara
dagoeneko
Uztarrin;
eskerrik asko
denei

Blogak ▶ www.uztarria.com/blogak/pertsonak

Elvis Azpeitian



El bisabuelo dela esan zidaten baina, kartelik ikusi ez nuen, ezin asmatu idazten. Hitz jokoa behintzat, ona da.

Zapatuan izan zen. San Agustinen. Plaza aldera gindoazela kanporainoko jendetza. Arkupeetan konjuntio bat. Musika ezaguna egiten zitzaidan. Bertara heldu eta Elvisen kanta jotzen ari zen talde bat. Elvis Presleyrenak. Azpeitiarrak ziren. Ezagunak.

Ahotsak kaskar samar entzuten ziren arren, oso ondo lortuta

zeuden abestiak. Elvisen abestiak entzundakoan sortzen zaizkidan zirrara berberak sortuarazi zizkidaten behintzat, niri. Anbientea ere aspaldian Azpeitiko plazan ikusi ez dena. Arkupe dena leporaino beteta eta beste horrenbeste plazan. Jende ez hain gaztea eta heldua ere erdi dantzan, alai. Txaloka. Beste bat eta beste bat eskatuz. Eta beste bat. Pena kontzertu osoa ez entzutea. Jakin izan banu...

Garai bateko anbienteaz akordatu nintzen. Kiosko aurrean berbenetan dantzan jarduten genuenekoaz. Konfiterira bueltaka ibiliz. Kuadrila bakoitzak plazan geure lekua finkatuta izaten genuenekoaz. Festa kalean egiten genuenekoaz. Kalabazak ere kalean hartzen genituenekoaz. Alaitasuna kalean zegoenekoaz.

Zapatuan ere sentsazio berriak bizi nituen. Sorpresa atseginaren benetan. Hildako baten abestiekin hilda geneuzkan emozioak berpiztea lortu zuten.

Ez dakit berriz ere entzuteko aukerarik izango ote dugun. Lagunarteko afizio bezala ibili direla

esan zidan konjuntio batek. Lan ikaragarria dela eta gero eta zailago egiten zaiela gisa hartako kontzertuak ematea. Mobida handia dela. Ordainetan zeozero jasoko balute gutxienez...

Aurtengo saninazioetan plazan imajinatu nituen. *El bisabuelo* jo eta jo, eta Azpeitia dantzan eta festan. Plaza gainezka. Eta udal zinegotzi berriak ere zoriontsu azken urtetako arrakastarik handiena bertako konjuntio batek lortu izanagatik. Merke-merke, gainera.

▶ Iosu Badiola

Inkesta ▶

Joaten al zara auzoetako festetara?

%35

Bai, askora

%31,2

Bai, baina oso gutxira

%33,8

Ez

Orain dagoen galdera. Udarako ordutegia ba al daukazue zuen lantokian?

Udal hauteskundeei jarraipen zabala egin die uztarria.com-ek

Bideoak ▶ www.uztarria.com/blogak/bideoak



Julian Eizmendi (EAJ).



Iñaki Errazkin (EAE-ANV).



Manuel Unanue (EA).



Juan Karlos Arellano (Aralar-EB).



Julia Tercero (PP).

Besterik

Albistegia. Kanpainako berriak jarri genituen.

Emaitzak. Aurreko urteetakoak eta maiatzaren 27koak bertakoak.

Pronostikoa. Kinielak.

Gehiago. Maiatzeko aldizkariko edukia...

Araukak ▶

Webean arau hauek bete behar dira idazteko.

1. Erregistratu beharra dago (inkesta atalean izan ezik).
2. Albistea edo Iritzia idaztean egilearen izen-abizenarekin sinatu behar da.
3. Iritzia atalean edo albisteen-eta erantzunetan, Uztariak ez ditu akusazioak eta irainak onartuko.
4. Testua euskaraz.

Di-da! ▶

Hautes propaganda

Hauteskundetako propaganda XIX. mende bukaeran ere erabiltzen zuten. Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunetik jasoa da ondorengo dokumentua. Azpeitian bertso paperen bidez egindako propaganda ikus daiteke. Hementxe ale bat (*di-da!* atalean sorta osoa jarri dugu):

*Azpeiti-co barrutiya
Oh lecu zoragarriya!
Euscaldun garbi garbiya.
Sartu citzaigun orain bi urte
Trampan Noserdar-queriya
Fuero-en etsai aundiya
Gure deshonra-garriya.*

Elkarrizketak on-line ▶ uztarria.com/parte_hartu/elkarrizketakOnLine

Julian Eizmendi. EAJ.

Iñaki Errazkin. EAE-ANV.

Manuel Unanue. EA.

Juan K. Arellano. Aralar-EB.

Julia Tercero. PP.

▶ **Oharra.** Uztariak Manoli

Urangari (PSE-EE) ere eskaini zion bideoa eta on-line egitea, baina ez zuen nahi izan.

JOXEAN AGIRRE ▶ kazetaria eta idazlea


“Kazetaritzak literaturaren aldean gutxi betetzen nau”

▶ Testuak eta argazkiak: Enekoitz Esnaola (Zarautz)

30 urtean prentsan, dozena erdi pasa liburu, *Bertsolari* aldizkarian... Joxean Agirre beti idazten.

Azpeitian jaio zinen, 1949an. Nahiko azkar utzi zenuen, ordea, herria.

Bai, eta bizi izan nintzenean, Azpeitiko periferiakoa nintzen, Landeta goiko baserri batekoa, Koostitekoa. 16 bat urtera arte



bizi izan nintzen Azpeitian, ikasten eta lanean, aspertu nintzen lanean, "nik kanpora joan behar diat ikastera" esan eta Donostia-ra joan nintzen batxilergoa egitera. Handik, Parisera. Harrezkero, kanpoan egin dut bizimodua.

Zer oroitzapen duzu herriaz?

Azpeitiarekiko harremanaz puntu bat aipatuko nuke: auzoko eskolan ibili nintzen bitartean ez nuen inguruarekiko inolako konponeziunik sentitu, baina zortzi bat urterekin herrian Maristetan hasi nintzen, halako eskusio sentimendu bat izan nuen, seguru asko

garai hartan baserritar askok sentitu zutena. Atzerritartasun sentimendu hori adinarekin gainditu dute guztiek, baina ni gazterik kanpora joan nintzenez, atzerritartasun puntu horrekin jarraitzen dudala uste dut. Egia esan, maristek ere ez ziguten gehiegi lagundu integratzen.

Ez al dituzu, beraz, gogoko maristak?

Irakasle moduan txarrak ziren, baina pertsona bezala eskasagoak. Ni oso gorroto gutxiko pertsona naiz. Soldadutzatik Armadarekiko gorroto puntu bat geratu zait, baina maristekiko dudana neurritz kanpokoa da. Fisikoki ere deformeak gogoratzen ditut, eta ez dut sekula ahaztuko goizetan nola joaten ziren parrokira mezatarra, besapean misala eta burumakur, inori egunak ematera ausartu gabe.

Nolako Azpeitia zen orduan?

Gipuzkoako beste herri batzuk baino itxiagoak ziren Azpeitia eta Azkoitia. 17-18 urte genituela garaioko gazte guztiak mezatarra joaten ziren igandeetan eta joateari utzi genionak kontatuak ginen, Xabier Saldias eta beste bizpahiru. Garaitu hartan zabaldu zuen *Potxu*-k Gau-Txori dantzatokia eta, aipatu zuten, igande goizeko mezatan herriko apaizek dantzaleku horren kontra hitz egiten zuten. Gu ordurako Illarrara jotzen ginen, Azkoitira; ordurako erromerien etapa bukatua zegoen. Tarteka Tolosara ere joaten ginen eta han neska-mutilen kuadrilak ikusten genituen. Azpeitian, bat edo beste salbu, denak kuadrila unisexak ziren, eta kalean gora eta behera ibiltzen ginen parean begiko zenuen neskari diosalen bat eginez.

Noiz joan zinen Parisera?

1969an. Garaiko giro politikoa ere beste herri askotan baino itxiagoa zen Azpeitian eta Azkoitian. ELAko militanteak, EGIkoak eta ezker abertzalearen inguruan mugitzen hasitakoak kontatuta, hogeita hamarren bat izango ziren. Ulertuko duzu, beraz, Pari-

Egunkariarekin

"Gaztetan Landetako

kuadrilarekin ibiltzen nintzen.

Igande arratsaldean Lagun

Onak ikustera joaten ginen.

Nik egunkaria eramaten nuen,

aspertu egiten nintzelako

futboleak. Bestela, Juan Joxe

Gerraundikoa-ren oso laguna

nintzen eta tarteka hondartzara

joaten ginen. Imanol Lazkano

ere ezagutzen nuen; etengabe

zegoen hitz jokoak-eta egiten".

“Nire gazte

garaietan Gipuzkoako

beste herri batzuk

baino itxiagoa zen

Azpeitia”

“1969an Parisera

joan nintzen, ikastera,

eta handik 'bagaje'

kulturala eta humanoa

ekarri genuela uste dut”

sera joan ginenean, bizkaitarrek esaten duten moduan 'aluzinetan' egotea.

Parisera zertara, ordea?

Ikastera; Soziologia. Hemengo unibertsitateak oso hilak zeuden orduan eta Pariskoak, aldiz, Soziologia eta horrelako ikasketetan puntakoak ziren. Lau urte egin nituen han.

Joateko erabakia hartu zenue-nean, zer zioten etxean?

Ni oso libre bizi izan nintzen. Etxean diru gutxi eskatzen bazenuen eta ondo ikusia bazinen, arazorik ez. Dena dela, aitak esaten zidan: "Hi zer ikasten ari haiz: ofizinarako edo tailerrera?". Lan intelektual eta eskukoa bereizten zituen, baina ez karreraren artean.

Zeinekin joan zinen?

Nire aurretik, azpeitiarren bat aipatzearren, han zen Donato Unanue. Baina gu taldeak eginda joan ginen, inguruko herrietakoak. Garai hartan, gainera, euskal iheslari ugari zen Parisen.

Sosak?

Lana egiteko modu erraza zegoen Parisen: gaez hoteletan zaindari, bulegoak garbitzen... Neuk horrelako lanetan jarduten nuen. Nahi zuenak bazuen lanik. Gainera, oso diru gutxirekin moldatzen ginen gu. Asteburuetan Euskal Etxean ibiltzen ginen asko.

68ko maiatzeko Parisen garaia ziren...

Intelektualki oso interesgarria, benetan. 68ko maiatzaren arrastoak erabatekoak ziren han: giroa, mundu guztiko jendea zegoen, lider politiko ugari, ezkerreko mugimenduek egundoko indarra zuten Frantzia, unibertsitatearen funtzionamendua... Esaterako, oso normala zen klasera kontra pentsatzen zuen jendea gonbidatzea. Espainiako Estatuaren, aldiz, frankismoa zegoen artean. Pentsa, beraz, aldean.

Eroso sentitu zinen.

Eroso bakarrik ez. Guretzat, urrezko aroa izan zen. Gure belaunaldikoen artean oraindik badira batzuk urtero Parisera joaten direnak egunak pasatzera.

Zertan markatu zintuen Parisak?

30 urtera arte politika asko bizi izan nuen, eta guk handik 'bagaje' kulturala eta humanoa ekarri genuela uste dut.

Garai hartako kontuak ez al dituzu idatzita?

Ez. Hala ere, orain idazten ari naizen nobela berrian *-La lutte finale-n-* belaunaldi haren kontuak idazteko asmoa dut. Joera dago belaunaldi hartaz testu transzendental samarrak egiteko, serioak, baina ni klandestinitatearen parodia egiten saiatzen ari naiz.

Paristik nora?

Soldadutzara: Caceres eta Madriler. Historian matrikulatu nintzen. Soldadutza bukatu eta Eibarko Ikastolan bi urte egin nituen, Historiako bigarren ikasurtean.

Eta 1977an, kazetaritzara: Egin-era. Orduan sortu zuten egunkaria.

Anjel Lertxundik deitu zidan, ea »



» egingo al nituen itzultzaile lanak. Ezagutzen ninduen, nahiz eta gutxi idatzia nintzen artean; *Egan* aldizkarian ipuinen bat. Segituan herri informazioa jorratzera pasatu nintzen, Donostiakoa. Haiek udalbatzarrak orduan Donostiakoak!

30 urte pasatu dira eta kazetari segitzen duzu, Gara-ren Gaur8 gehigarrian.

Esan izan dut ez naizela kazetari sentitzen, baina kazetaritza urte askoan asko bizi izan dut; entrega handiarekin, energia asko ematen nion. Lanbide honetan ondo sentitu nintzela uste dut. Banuen sinesmen bat elkarriketa eta erreportaiekin; iruditzen zitzaidan elkarriketekin bi orduan pertsona bat ezagutzera iristerik bazela.

Eta?

Uste dut ez zarela iristen. Askoz zentratuz gero-eta, usaina hartzera heltzen zara. Adibidez, Mikel Laboarekin-eta egin nituen elkarriketetan, bi saiokoak egin nizekien, pertsona hobeto ezagutze-ko asmoz.

Gutxi zineten orduan euskaraz idazten zenutenak prentsan.

Hiruzpalau lagun.

Gazteleraz ere idazten duzu. Eroso?

Bai. Badakizu non egiten duzun lana: erdal egunkari batean. Gainera, behin ere ez naiz arraro sentitu.

1986tik 1990era euskarazko astekari bateko zuzendaria izan zinen: Hemen-ena. Egin-en enpresak ateratzen zuen. Esan izan duzu euskarazko egunkari bat sortzeko "entrenamendua" zela hura.

Sorrera ez zen behar bezalakoa izan, gauzak presaka egin zirelako: *Deiak* egunkariak *Eguna* astekaria atera behar zuen, diru laguntzak zeuden... Baina, tira, lan talde ona osatu genuen, gaztea. Produktu hibridoa zen hura: erdi egunkari –froga egin nahi zen–, erdi astekari.

Uste al zenuen erdal komunikabide baten enpresatik sortuko zela euskarazko egunkaria?

«**Sekulako aurrerapena eman da euskarazko kazetaritzan. Maila ona dago**»

«**Ordenadora bat dut lanerako eta beste bat liburuetarako. Desberdina da batean edo bestean idaztea**»



Joxean Agirri, *Argia*-k 1986an *Hemen* astekariak egindako elkarriketa.



Agirre, 1990ean, Argia Saria jasotzen. Rikardo Arregi Saria ere jaso zuen urte hartan.

Ez. Eta ez dut uste inork sinesten zuenik hori, nahiz eta inoiz aipatu zen. Sinetsi nahi zena, *Egin*-eko euskara portzentaia gehitzen joango zela zen. Gaur egun *Gara*-k euskara gehiago darabil, baina horrek muga nabarmena du: salmenta. Beti egongo dira erdaldunak kexatuko zaizkizunak egunka-

rian euskararen presentziaren batez bestekoa %30-40ra igo-tzen baduzu.

1990ean itxi zen Hemen. Urte berean sortu zuten, Argia aste-kariak bultzatuta, euskaraz-ko egunkaria: Euskaldunon Egunkaria. Zeu izango zinen orduan prentsan euskaraz idazten esperientziarik handie-netakoa zuena. Deirik izan al zenuen Egunkaria-n hasteko? Tentaziorik?

Egunkaria-k naturaltasunez jokatu zuen, beste enpresetan zeuden kazetari euskaldunak bakean utzita. Ni bezalakoa egokitu-ko ginatekeen *Egunkaria*-ren proiektuan, baina logikoa zen ba-kean uztea gu, eta ez dut uste deirik jaso behar nuenik ere. Gai-nera, segituan ugaldtu ziren kaze-tari euskaldunak.

Zenbateko aurrerapena eman da?

Sekulakoa. Kazetaritza genero al-detik (albisteak, erreportaiak, el-karrizketak...) gazteleraz leitzen duzu, euskaraz leitzen duzu, eta ez dago alderik. Maila ona dago. Agian, iritzi arlorrean dago maila hobia erdarazkoetan. Baina eus-kara egina dago jadanik.

Esaten zenuen Hemen-ekin astekari normal bat egin nahi zenutela, jendea ez zedila ohartu euskaraz egina ze-goela...

Badakit guk orduan, duela 20 urte, ez genuela lortu hori, baina gaur egun lortu egiten da. Gaur-ko belaunaldi gazteek normalta-sun osoz leitzen dute euskaraz, eta euskarazko egunkari batera jotzen badute, produktu hori ona delako da. Normaltasuna lortu da hor.

Oraindik gaztelerazko egun-kariak dira nagusi.

Ohartu behar gara, ordea, *El Dia-rio Vasco* ondo egindako egunka-ria dela, tarteka PPren parrastak izan arren: politika gai gutxi ditu, gizarteko asko, kiroleko asko... Politikoki absurdoa da, baina... *Egin* eta *Gara* atera zirenean, 1977an, garai bat egon zen

El Diario Vasco oso gaizki ibili zena eta akabera emateko mo-duan izan ziren [1978an Espai-niako Poliziak Gipuzkoako ordu-ko egunkariak salduena itxi egin zuen, *La Voz de España*, eta *DV*-k 30.000 aleko salmentatik 60.000rako saltoa eman zuen].

Hemen-en itxiera ezagutu zenuen. Egin-ena ere bai, bes-telako arrazoi bategatik.

Kolpea sentitzen duzu baina, erreakzioa hain azkarra izan zen, *Euskadi Informacion* sortuta, azkenean horretara jartzen zare-la, berrira; batik bat, kazetariok, idazten genuenak.

Bertsolaritza gertutik segitu izan duzu. Zeuk sortu zenuen Bertsolari aldizkaria, 1991n.

Aurretik hasi nintzen *Egin*-en bertsolaritzaz idazten, gaiaz pren-tsan ez zelako batere idazten. *Deia*-n zerbait Sakonak eta nik *Egin*-en. Indarrarekin heldu nion: finaleko kronikak, elkarriketak, erreportaiak... Ez zen gaia sakon-tzea, horren berri ematea baizik. Dena dela, berdin jokatzan nuen euskal kulturako beste arlo ba-tzuekin, komunikabideetan oso ezkutuan zeudelako: dantza... Jokoa ematen zuten. Gero ikusi da zenbaterainokoa eman duen bertsolaritzak komunikabideetan. Gertatzen da eszedentzia hartu nuela, eta buruan nebilkien aldiz-kariaren proiektua sortzea eraba-ki genuen.

Bertsozale Elkartetik kanpo sortu ere.

Eta hobeto. Garai hartan, egia esan, elkartekoak proiektu asko-rekin zebiltzan eta ez zuten beste lanik nahi, nahikoa zeukaten. Beti izan dut, ordea, bertsolaritzako jendearen laguntza –Joxerra Gar-ciarena, Andoni Egañarena...–, eta Elkar argitaletxeak ere lagun zuen inprimategian 1. zenbakia botatzeko.

Zergatik izan zen mesederako elkartetik kanpo sortzea?

Elkarteak berak sortu izan balu, *Bertsolari*-k buletin itxura handia-goia izango zukeelako. Nik, aldiz, kazetaritza nahi nuen landu, eta

askatasun handia izatea. Elkarteko arduradunek beti eskertu didate hori.

Oraindik segitzen duzu *Bertsolari*-n.

Hein batean, nire neurriera eginda-ko aldizkaria da, baina gaur egun agortuxe ikusten dut. Hortaz, txarra ez nik uztea. Hamasei urtean hor nago, eta gehiegi ikusten ditut neure eskua, maniak... Aurretik uzteko asmoa daukat. Xabier Mendiguren Elizegirekin hitz egin dut, ea hartzen duen. Urtebete-edo egingo genuke elkarrekin, baina garrantzitsuena beste aro bat hastea da: beste formato bat, beste diseinu bat, edukian aldatetako. Orain arte ikuspegi humanotik landutako produktua izan da, eta baliteke gero ikerketa, pentsamendu, eztabaida gehiago izatea, behar dituelako. Kazetaritza ere jorratu beharko luke. Oreak topatu, azken batean.

Pena ere emango dizu uzteak.

Bai, *Bertsolari* aldizkari honek baduelako bere xarma. Ez dit lan askorik ematen: urtean afari batean urteko zenbakien gai nagusiak planifikatu, ondoren gaiak egokitu, lanak banatu, igande arratsalde batzuetan lan egin... Denborapasa bezala egiten dut, gustatzen zaidalako. Baina maite dut aldizkaria eta gustatuko litzaidake beste bide bat hartuko balu.

“Ikuspegi humanoa”, esan duzu. Erraza izan al da?

Ez beti eta ez denekin. Izan ere, bertsolariek oso bizimodu sakabanatua daramate, orain hemen daude, gero han, eta zaila da haiekin geratu, jarri eta hitz egitea elkarriketarako. Gazteekin errazagoa da, hala ere. Nik uste bertsolari zaharrek baino modu ari-nagoan tratatzen dutela bertsolaritza, zaharrak transzendentala-goak dira. Hala, gazteek aldizkaria euren arteko topagune bezala ikusten dute eta haien artean badu presentzia.

Liburuak ere idatzi dituzu, eta beste batekin ari zara.

Gaztetxoa nintzela hasi nintzen neure gauzak idazten, poemak-

eta. Hamasei urterako euskal klasi-koak leituta nituen. Giroa zegoen horretarako, euskararen aldekoa. Idazle izateko dohain batzuk nituela uste nuen, baina hamasei urterekin-edo erabaki nuen utzi egin behar nuela. Izan ere, orduan politikak hartzen zuen nigan ere gaina, premia handiagokoa zelako. Idazteari 30 urterekin heldu nion berriz ere, baina urteetako hutsune horren falta sentitzen dut, formazio falta hori.

Zure gazte garaian ezin al zitezkeen biak jorratu, politika eta literatura?

Literatura luxu bat bezala hartzen zen garai haietan. Politikak jaten zuen ia dena. 70eko hamarkadan aldaketa handi batzuk zetozen eta guk hor parte hartu beharra

genuen, gizartea nahi genuen lekura eraman nahi genuelako. Literaturak ez du gizartea aldatzen, pertsona baizik. Gizartea politikak aldatzen du, eta gu oso konbentzitu geunden.

Eta zergatik heldu zenion berriro literaturari?

Politikaren betiko desenkantua-gatik asko. Arrazoi pertsonalak ere baziren: autoanalisisa, adineko krisiak... Nire plazera bilatu nahi nuen literaturan.

Topatu al duzu?

Handia.

Egunkarian, aldizkarietan, liburuak... Beti idazten.

Bai, eta beti bi ordenadora izan ditut: bat prentsarako, bestea liburuetarako. Etxean portatil bat literatura idazteko dut eta beste

bat lanerako (egunkarikoa idazteko —erredakzioan ezin dudanean egin—, *Ikastola* aldizkariakoa, *Bertsolari*-koa).

Psikologikoa al da bi ordenadora izatea?

Erabat. Desberdina da niretzat batean idatzi edo bestean. Portatilekoa askoz lasaiago, mantsoago idazten dut. Egunkarian, aldiz, abiadan idazten dut eta fama hori daukat; mantendu nahi dut, gainera, fama... Zergatik batean mantso eta bestean azkar? Kazetaritza izugarritzko exijentziarik ez dudalako. Literatura, aldiz, oso motela da, pazientzia ariketa bat, egunero piztu portatila eta hitz batzuk kendu, jarri...; etengabe horren gainean. Gertatzen zait: goizean literaturako hamar lerro idatzi igual eta eguna salbatzea, etxetik irten eta egun horretan pasatzen denak inporta ez izatea bezala.

Kazetaritzak ere beteko zaitu oraindik, ezta?


Bai, betetasun pixka bat ematen dit. Literaturaren aldean gutxi, ordea.

Dozena pasa liburu idatzi dituzu. Zein duzu gustukoena?

Azkenekoa, *Romain zen bere izena*. Beste batzuekin ere gustura geratu izan naiz. Batzuk garaiz kanpokoak dira dagoeneko, baina ondo idatzita daudela uste dut. Txillardegiri egin zion elkarriketa liburuarekin, aldiz, ez nintzen batere emozionatu —ezta hura ere—; ez dago ezer originalik.

Noiz aterako duzu *La lutte finale*?

Joseba Jaka beka irabazi dut hori idazteko eta hurrengo urteko irailean bukatzeko epea daukat. 2008ko Durangoko Azokan kalean izango da. ◀



ARGIÑANONEAN.

Zarautzen egin genuen elkarriketa Agirrerekin (han bizi da), Argiñano jatetxean. Karlos Argiñano bera azaldu zen une batez eta kasu egin zion Agirreri. Telebistako programako saioak grabatzera zihoan Argiñano.



Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK™

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

JOAN...



Gurean ▶

EGOITZ MENDIA

▶ pilotaria

“Azpeitiarra borrokalaria da, oro har”

Maiatzaren 11n Beasaingo pilotariak izan ziren Azpeitian herriarteko pilota txapelketa jokatzeko. Egoitz Mendia Beasaingo jubenetako atzelariarekin solas egin zuen Uztarriak.

Lehenagotik izanda al zeunden Azpeitian?

Azpeitira gehiagotan etorri izan naiz, baina ia beti pilota partida jokatzera. Hemen oso giro ona egoten da eta jendea ere gustura etortzen da partida ikustera.

Nolakoak gara azpeitiarrak?

Azpeitiarrak borrokalari petoak zarete, oro har. Parrandetan-eta gutxitan egin izan dut topo azpeitiarrekin baina, agian, gustura hartuko nuke beraien konpainia.

Herriarteko pilota txapelketan zein herri da zure faborittoa?

Azkoitia, Donostia eta Azpeitia bera aipatuko nituzke. ◀



San Agustingo obrak martxan

Maiatzaren 11n hasi zituzten Altuna y Uriako langileek San Agustingo barrualdea eraberritzeko lanak. Espainiako Gobernuak Etxebizitza Ministerioak 2006ko azaroan atera zituen obrak lehiaketara. Lanok burutzeko aurrekontua 1.836.891 eurokoa izango da eta urtebeteko epean bukatu beharko dituzte. Argazkian, Ministerioaren kartela jartzen.



Elkartasuna harrietan

60 pertsonak hartu zuten parte maiatzaren 12an Gaztetxean *Euskal presoak Euskal Harrietara* eskalada txapelketan. Azpeitiarrak ez ezik, zestoar eta azkoitiar ugari ere hartu zuen parte.

Hizkuntz Eskubideen Egun jendetsua

Maiatzaren 6an ospatu zen Azpeitian EHEk antolatutako IV. Hizkuntz Eskubideen Eguna. Manifestazioan 500en bat lagunek hartu zuten parte eta 400 pertsonak bazkaldu zuten Azoka Plazan.



Bisitarien zentroa Loiolan

Turismora bideratutako bulegoa zabaldu zuten maiatzaren 4an Loiolan. Hango Bisitarien Zentroak, turismoko azalpenak emateaz gain, eza-gutza eta kultur arloko puntu bilakatu nahi du.



MAIATZAK 4 ▶ *El Ilusionista* filmaren emanaldia Betharramdarretan. **MAIATZAK 6** ▶ Bilboko Katedraleko Musika Kaperaren kontzertua parrokian. **MAIATZAK 11** ▶ Aterkings taldearen kontzertua Orkatx Kultur Elkartearen. **MAIATZAK 12** ▶ Bidezko merkataritza azoka plazan. Maribi Bascones mojarren lanen erakusketa Betharramdarretan. **MAIATZAK 18** ▶ *Piano bat bertsoan* ikuskizuna Iraurgi SB tabernan. **MAIATZAK 25** ▶ Emakumeen Mahaiak eta Gizartekintzak antolatutako jaia. **MAIATZAK 27** ▶ Xoxoteko Eguna.

EKAINAK 2 ▶ Gazte Astearen baitan, futbito txapelketaren finala 15:00etan, Plazan. **EKAINAK 3** ▶ Nuarbeko Trinidad jailetako herri kirol jaialdia 18:00etan: Aimar eta Izeta II.a harri-jasotzaileak eta Arrospide eta Otaño aizkolaria. **EKAINAK 10** ▶ Enparan Kaleko Korputz jaiak; suziria 10:00etan eta bazkaria Aitonenan 14:00etan. **EKAINAK 22** ▶ Urrestillako sanjuanetako pilota partidak: Irujo-Zubieta eta Gonzalez-Barriola. **EKAINAK 24** ▶ Oñazko sanjuanak: harri-jasotzaileak eta zaldi dema 12:00etan.



AMUARRAIN ARRANTZA TXAPELKETA.

Herri Mailako XVI. Amuarrain Arrantza Txapelketa jokatu da ekainaren 3an Urola ibaian. Alebin eta infantil mailako arrantzaleak lehiatu dira herriko uretan amuarrain handienaren bila.

EKAINAK 3 ▶ 9:00etatik 12:00etara ▶ Urola ibaian ▶ Txalintxok, Udalak eta Aldundiak antolatuta

MAIALEN ORBEGOZO ▶ Sanjuandegiko Festa Batzordeko kidea

“Sokamuturrak eta txokolatadak dute arrakasta handiena festetan”

Urtero bezala, ekaineko lehen asteburuan ospatuko dituzte Sanjuandegiko jaiak. Ekainaren 1ean (ostirala) botatako suziriarekin emango diete hasiera festei. Horren ondoren, erraldoi eta buruhandiak kaleratuko dituzte, eta Vostok eta Nuke taldeen kontzertua izango da gauez, hamaiketan.

Maialen Orbegozo Festa Batzordeko kidea da eta bost urte daramatza jailetako kontuak lotzen. Haren ustez, “larunbata egun garrantzitsua da, gau-pasa eguna baita”. Goizean zilindrada handiko motorren erakusketa egingo dute, 14:30ean auzo bazkaria antolatu dute, gauean bertso afaria Ongi Etorri erregian eta 22:30ean saloi dantza erakustaldia eskainiko du Jose Mari Orbegozok plazan.

Herritarrei Sanjuandegira azaltzeko deia luzatzen

diete; “izan ere, igande goizeko sokamuturrak eta txokolatadak dute arrakasta handiena, baina beste ekitaldietan partaidetza eskasa izaten da”.

Pasadizoak ere bizi izan ditu urteotan Orbegozok. “Urte batean autoreen elkarteko pertsona bat etorri zitzaigun Golden Apple Quartet taldearen kontzertura, %25eko tasa ordaindu behar genuela exijituz”. Gaizki pasatu zutela onartzen du, baina azkenean ordaindu eta “zertxobait” sobratu zitzaiei dio. ◀

EKAINAK 1 ▶

Sanjuandegiko festen hasiera.

- ▶ 20:00etan txupinazoa; 23:00etan kontzertuak.
- ▶ Sanjuandegi auzoan.
- ▶ Sanjuandegiko Festa Batzordeak antolatuta.

...ETORRI



Besterik ▶

KORPUTZ JAIK 2007


Eliz kalean ▶

Ekainak 9, larunbata.

- ▶ 16:00. XX. Erretz Txapelketa, Lagun Onak Mendi Bazkunan.

Ekainak 14, osteguna.

- ▶ 18:00. Festen hasiera. Kalejira eta buruhandiak.



Ekainak 15, ostirala.

- ▶ 18:00. Trikitilariak eta buruhandiak.
- ▶ 19:30. Kitarrista taldearen emanaldia.
- ▶ 23:00. Laja eta Eguren.

Ekainak 16, larunbata.

- ▶ 13:00. Itsasi Dantza Taldearen kalejira.
- ▶ 16:00. Frontoi Txikin: Emakumezkoen Pala Txapelketaren finalak.
- ▶ 19:00. Txalaparta.
- ▶ 20:30. Afaria Aitonenan.
- ▶ 23:00. Dantzaldia.





han eta hemen FUTBOLA

Ekainerako futbol txapelketa ugari antolatu dute Azpeitian: 24 ordukoa, anaiartekoa, emakumeena...

► Testuak eta argazkia: **Maidar Zendoia**

Futbola atsegin duenak hartzordu ugari izango du ekainean Azpeitian. Izan ere, futbol 7ko bi txapelketa (24 ordukoa eta emakumeena), eta Ezkarai (Errioxa, Espainia) eta Azpeitia arteko partidak jokatuiko dituzte hil honetan herrian.

Meliton Rodriguez Iraurgi Ikastetxeko futbol entrenatzailea 24 orduko futbol txapelketaren eta Ezkarai-Azpeitia lehiaren antolakuntzan sartuta dabil buru-belarri. "Orain dela lau urte zortzi urteko mutiko taldea entrenatzen hasi nintzen eta, agurtzeko unea iritsi denean, zerbait berezia egitea bururatu zaigu", dio Meliton Rodriguezek. Horrela, hark taldeko kideei Bartzelona Cup txapelketan parte hartzeko proposatu die; baiezkoa eman diote. "Diru asko behar da bidaia antolatzeko eta, nahiz eta gurasoek-eta kolaboratu, 24 orduko txapelketa hau antolatzea pentsatu dugu". Beraz, futbol alorreko egitasmo bat alor bereko beste batekin bultzatzea pentsatu dute.

Ekainaren 30 eta uztailaren 1 bitartean jokatu da, Garmendipeko futbol zelai artifizialean. Kadete mailatik gorakoei zuzendua

Meliton Rodriguez, 24 orduko eta Azpeitia-Ezkarai txapelketen antolatzailea.

Egutegia

II. Emakumeen

Futbol 7ko Txapelketa.

Ekainaren 2tik.

Azpeitia-Ezkarai

anaiarteko

futbol

txapelketa.

Ekainaren

16 eta 17an.

24 orduko

futbol

txapelketa.

Ekainaren

30etik uztailaren

1era.

egongo da, eta talde bakoitzak, gutxienez, bi partida jokatuiko ditu (Liga eta Kopakoa). Izena emateko 50 euro ordaindu behar dira, Erreka, Iraurgi ISB eta Korrale tabernetan. Izen-emateko epea ekainaren 22an bukatuko da.

Ekainaren erdian Azpeitia eta Ezkaraien arteko anaiarteko txapelketa izango da. Txapelketa Azpeitian Garmendipeko belar artifizialean jokatuiko dute, eta lehen hezkuntzako 5. mailako neska eta mutilek hartuko dute parte. Guztira, Azpeitiko hamabi taldek (sei neskenak eta sei mutilenak) eta Ezkarai talde batek jokatuiko dute, futbol 7ko arauekin.

► **EMAKUMEENA.** Emakumeen II. Futbol 7ko Txapelketa ere jokatu da ekainean Azpeitian, hilaren 2tik aurrera. Nesken artean futbola sustatzeko helburuarekin sortutako egitasmoa da. "Iaz 16 taldek hartu zuten parte; beraz, 160 bat neska aritu ginen futboleant", dio Alaitz Badiola antolatzaileetako batek.

Lagun Onak Futbol Taldeko neskek hartu dute bere gain txapelketaren antolaketa. "Neska izan eta hamahiru urte baino gehiago izatea da bertan parte hartzeko baldintza bakarra", dio Badiolak. Taldeek, gutxienez, hamar lagunekoa izan beharko dute. Taldeko 60 euro ordaindu behar dira eta horretarako ondorengo lekuetara zuzendu beharko dute interesa dutenek: Txarrantxa, Orkatz Kultur Elkarte, Lokotx, Oñatz, Bost, Neguda eta Gaztetxea. ◀



ARGOILA GORDE EGIN DUTE.

Sokamuturrekiko zaletasunaren seinale da ondorengo istorioa. San Martin egoitzan lanetan ari dira, eta maiatzaren bukaeran bota zuten han aurrealdeko harresia. Hantxe egon da urteetan eta urteetan sokamuturrean zezenaren soka lotzeko argoila (ikusi argazki txikia). Harresia botatzear zirela ikustean, Andres Aizpuruk gorde egin zuen argoila, eta haren seme Joxe Miguelek eman zien San Martinekoei. Biltegian dute gordeta, noiz jarriko berriro. Guk obretako hesian jarri dugu une batez.

► Testua eta argazkiak: Enekoitz Esnaola

Efemerideak ▶ ekaina



Silbestre Otamendik Alkatetza utzi zuen 1977ko ekainaren 30ean. UZTARRIA

udara atariko PASADIZOAK

Udaletxeko erlojua erosi, EHNAren bulegoa zabaldu, Udaletxeko ordularia erosi...

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarría)

EKAINAK 1-2002 ▶

EHNAren bulegoa zabalik. Euskal Herriko Naziotasun Aitor-men Agiria (EHNA) ateratzeko Azpeitiko bulegoa inauguratu zuten.

EKAINAK 2-1902 ▶

Azoka plazako komunak. Azoka plazan iturri bat jartzea eta bertako komunitara ura sartzea erabaki zuten.

EKAINAK 5-1847 ▶


Azken bozketa. Urrestillaren independentziaz azken bozketa egin zuten. Emaita: 127 boto baiezkokoak ziren eta 87 ezekoak. Urrestilla, Nuarbe eta Elosiaga auzoak banatzearen alde azaldu ziren, eta Aratz-erreak eta Matxinbenta kontra.

EKAINAK 9-1967 ▶

Zaborrak erretzeko labea. Zaborrak erretzeko labea egitea enkantean adjudikatu zitzaion Legorretako Juan Sanchezi.

EKAINAK 11-2002 ▶

Liburuaren aurkezpena. *Nobi-*



Udaletxeko erlojua. UZTARRIA

liario de Azpeitia. Probanzas de Nobleza e Hidalguía liburua aurkeztu zuen Udalak.

EKAINAK 30-1977 ▶

Alkate aldaketa. Silbestre Otamendik Alkatetza utzi zuela jakinarazi zuten. Bide batez, adierazi zuten bitartean haren teniente Agustín Pratek hartuko zuela kargua.

EKAINAK 27-1932 ▶

Udaletxeko ordularia erosi. Udaletxerako ordulari bat erosi zioten Lezea eta Murua etxeari. ◀

Pertsonaia ▶

HERRIKO INDARTSUA.

Luis Mari Lopetegi Aranguren *Agerre I.a* harri-jasotzaile ezaguna 1927ko ekainaren 9an jaio zen Azpeitian, Agerra-handi baserrian. Harri kubikoarekin erakustaldi handiak eman zituen, eta ustekabeen hil zen 1969ko abuztuaren 2an.



Datura ▶

20

URTEAN ZABALIK UMEEN MUSEOA.

Umeen Museoa 1987ko ekainaren 5ean inauguratu zuten Loiola auzoan, Egibar baserrian. Gaur egun, Ingurumen Etxea dago kokatuta han eta alor horretako proiektu hezigarriak jarri dituzte abian. Hamazazpi gunetan banatuta dago eraikina.

Argazkia ▶

**ENPARAN DORRETXE BERRIZTATUA.**

Donostiako Kutxa Municipalak eraikina berritu ondoren, Enparan Dorretxea inauguratu zuten 1977ko ekainaren 23an. Enparan etxearen eta sendiaren historia ez ezik, berritze lanen memoria jasotzen zuen liburua aurkeztu zuten egun berean.

Kontua da... ▶

Auzoetako maisuak



Imanol Elias
Odriozola

Askotan entzun dugu belar motzean ohitutakoak izan zirela gure aitona-amonak. Egia da gaurko hamar eurok baino gehiago balioko zuela garai batean pezeta bakar batek, baina hura irabazteko egin behar zuten lana ez zen izaten nolanahikoa.

Azpeitiko auzo askotan zabaldua zeuden eskole-tako maisuak auzoko biztanleek aukeratu eta Udalak izendatzen zituen. Horrela, baserri batean edo beste igarotzen zituzten denboraldi luzeak.

Eskolako maisu bat behar zuten, nonbait, Odria auzoan, eta herriko agintariei eskatu zieten ehun pezetako laguntza emateko Miguel Zendoia maisuari ordaindu ahal izateko. Hala, hark ondorengo konpromisoa hartu zuen: urteko lau hilabetez Odria baserrian lanean ariko zen, beste lau hilabetez Odriozolatxon eta gainerako beste lauretan Barrenola baserrian. Gau eskola, berriz, zabalik egongo

zen azaroan eta abenduan Premietxeberrin, eta urtarilean eta otsailean Barrenolan.

Ez dakigu ikasle bakoitzeko zenbat ordainduko zioten maisuari, baina ez zaigu iruditzen gehiegizkoa izango zenik. Proposatzen zuen langintza, ordea, ez zen makala. Askotan esker handirik jaso gabe gelditu eta auzotarren txantxak jaso behar izaten zituen.

Horrelako zerbait gertatu zitzaion maisu bati. Herrena zen eta hiru alabako sendiaren baserrian hartu zuen ostatu. Haren logela beheko solairuan zegoen eta mandioa zuen gainean. Hiru alaba gazteak hanka herrena ikusteko irrikatzen zeuden eta mandioa ohol zaharren arteko zirrikitutik begira aritu ziren. Azkenean, maisuak oinetakoa eta galtzerdia kendu zituen eta hanka txikia bistan geratu zen... Jakina, maisuaren hanka txikiari buruzko komentarioak eta algarak entzutekoak ziren auzokoen artean!

Garai bateko Azpeitia ▶ Kandelari Kerejetak kontatua

azokari LEIAL

Kandelari Kerejeta Aratz-Errekan bizi izan da urte luzez; baserria izan du bizileku eta azoka, berriz, bizimodu

▶ Testua: **Ane Aranburu**

Kandelari Kerejetak ederki kezagutzen du Azpeitiko azoka. Hogeita hiru urterekin ezkondu zen eta, orduz geroztik, zuzen bete du, urtez urte, astarteroko hitzordua azokan. Gazta saltzen aritu izan da, batez ere; Aratz-Errekako Errasti Baso baserrian egindakoa. Badira zazpi urte bere lana utzi zuela; hala ere, baserrira joateari ez dio laga, ezta azokara joateari ere.

Amari hartu zion azokara jaisteko oinordekotza. Gaztetxoa zela harekin astoan jaisten zen Atxunbarriaga baserritik Azpeitiko azokara. Babarrunak, oilaskoa, gazta eta beste hainbat produktu sal-

tzen zituzten. Errasti Baso baserri-rrira ezkondu zen, eta han hasi zen Kerejeta bere kabuz azokara joaten. "Zaldian jaisten ginen Errastitik". Zaldiari zestoak jartzen zizkieten eta horrela egiten zuten baserritik Aratz-Errekarainoko bidea. "Han, Iborla ondoan, 'karroetxea' deitzen genion txabola bat genuen, bertan zaldiari karroa

Eskainitako prezioan saldu beste erremediorik ez du baserritarrak orain. Garai hartan erosketak azokan egiten ziren"

KANDELARI KEREJETA ▶ baserritarra



Azpeitiko Plaza, azokako egun batean. UZTARRIA

erantsi eta Azpeitirantz ekiten genion", azaltzen du Kandelari Kerejetak.

Hala ere, gaur egungo azoka eta lehen egiten zena "oso desberdinak" direla aitortu du. "Zeharo gutxitu da baserritarra azokan", dio Kerejetak. Lehen baserritik bizi zen jende gehiago zegoela uste du. "Orain, eskainitako prezioan saldu beste erremediorik ez du baserritarrak. Garai hartan, berriz, ez zegoen merkataritza gune handirik eta erosketak azokan egiten ziren".

POSTUA AZOKAN. Kandelari Kerejetak adierazitakoaren arabera, baserritarrak euren artean antolatzen ziren azokan hasiera batean. Geroago, lore saltzaileak eta etortzen hasi zirenean, Udalak hartu zuen bere gain antolaketa. Hortaz, metro edo metro erdiko postuak aukeran jarri zituen Udalak, eta urteroko kuota ordaintzen hasi ziren baserritarrak. "Gu hiru ahizpa egoten ginen elkarren segidan. Polita izaten zen", gogoratzen du. ◀



Zaindu ▶ Sardina

Julian
Bereziartua



Inolako zentzurik gabe ospea galdu duen arraina dugu sardina. Lehen mailako elikagaia da. Tamalgaria da erosten dugunetik %50 botatzeko izatea, ez baita jangarria. Hala eta guztiz ere, gure kultura eta gastronomiarekin lotura handia izan du beti.

Nire iritziz, merkatuan dagoen arrain merkeenetakoa eta zaportsuenetakoa da. Ugaria ere bada, ugalkortasun ikaragarria duelako.

Inolako zalantzarik gabe, prestatzeko erarik egokiena erretzea da. Baina badu horrek ere bere sekretua. Egurrezko ikatzez egindako suaren txingarretatik urrun samar jarri behar da parrilla; gertuegi jartzen bada, erortzen diren koipe tantek sugar zuri bat sortzen dutelako.

Ehun gramo sardinak 130 kaloria ematen ditu, pisu bereko arkume haragiak edo kilo erdiko meloiak adina. Udara garaian %12 inguru koipe izaten du, baina egokia da gure kolesterola gutxitzeko, koipe gehienak asegabeak baitira.

Azido uriko asko dute, tamalez; batez ere, hezueria (*gota*) dute-nentzat. Karbono hidratorik eta azukrerik ez dauka.

Laburbilduz, pertsona osasuntsuentzako sardina ona da, baina ez urdaileko ultzera, behazunean harriak edota erreuma dutenentzako elikagaia.

ASIER LARRAÑAGA ▶ autoeskola irakaslea

Ikasi edo irakatsi?

Irakastea nahiago dut.

Teoria ala praktika?

Biak beharrezkoak dira.

Aholku on bat?

Arreta jartzea errepidean eta pazientzia.

Eta dohai bat?

Pazientzia eta aurreikuspena.

Ohiko mania bat?

Stop-a saltatzea.

Gidatzea, beharra ala plazerra da?

Biak.

Puntukako gida

baimena, konponbidea ala zigorra da?

Batzutan huskeriengatik kentzen dituzte puntuak, besteetan oinarritzko arau-hausteak egiten dira.

Gidatzeko martxa bat?

Berez onena 4. martxa da.

Gidari bat?

Fernando Alonso.

Kotxe bat?

Volkswagen Golf.



▶ Testua eta argazkia: Maider Zendoia

Abizena ▶ Mendieta

Armarria.

Zuhaitz bat ageri da erdian, berde kolorekoa eta fruituekin. Tronkoaren ezerraldean zitori horia azaltzen da, eta eskuinean, berri, lehoia. Armarriaren goialdean zilar koloreko ilargia eta izarrak ikus daitezke.

Banaketa semantikoa.

▶ Mendi hitzak eta -eta (lekua) atzizkiak osatzen dute Mendieta abizena.

Esanahia.

Mendiak dituen ingurunea.

Abizenaren kokapena.

- ▶ Sopuerta.
- ▶ Karrantza.
- ▶ Bilbo.
- ▶ Larrabetzu.
- ▶ Gordexola.
- ▶ Galdames.
- ▶ Arratzu-Ubarrundia.
- ▶ Deustua.
- ▶ Lemoiz.
- ▶ Galdakao.
- ▶ Artziniega.

Abizenaren hedapena.

- ▶ Bilbo (1664).
- ▶ Valladolid (1671).



Esandakoa ▶

“ Mikel Labaka nabarmendu nahi dut, merezi du; egundokoa da klubarekin daukan konpromisoa ”

MIGUEL ANGEL LOTINA ▶

Realeko entrenatzailea

“ Menpekotasun Legearekin kea saldu da asko, beharra duenari hilero 250 euro emango dizkiotelako ”

ESTHER LARRAÑAGA ▶

Gizarte Ekintzako diputatua

Zenbat ▶

50

URTEAN USTIATU.

Hotela egingo dute Basazabal Jauregian, eta eraikinaren ustiaketarako 50 urte izango ditu kontratua lortzen duenak.



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

Irudiekin, Iraurgi bailaren zerbitzura

KAITO TELEBISTA

Grabatutako bideoen kopiak egiten dira




81 53 35

Gertuko pasadizoa ▶

azpeitiarron IGERILEKUA

‘Azpeitia. Gaztaroko kronikak’ liburutik
hartua ▶ Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
▶ 2000 ▶ Egilea: Imanol Elias



ur baketsu eta garbiarekin jolasten dira guztiak. Baina bapatean, guztiak irtetzen dute uretatik, ezagutzen ez duten suge bat agertuta bezala ubidean. Hanka bustiekin eta igeritako galtzak txorroan ura botatzen dutela, guztiak bide bat hartzen dute, zubi aldera. Nire lagunei jarraitzea bakarrik gelditzen zait, korrika hasi direnean bultzada bat eman didatenez beraiek daramaten norabide aldera egiten ditadela eta zubi aldera begira jarri. Zubiaren ingurura iristen naizenean ikusten dut nahiko zirraborrotsu bada ere, eguzkiaren kontra begiratzean, beraren gainean zutik, aurrez igerian ikusi dudana bat uharkaren ondoan. Ikusten denez, saltatzeko asmoan da bertatik...

Segundu gutxiren barruan, badirudi aurrez zen aktibitate guztia gelditu dela inguruan. Inor ez ubidean igerian eta ez da ere inor jolasean ura indarrean erortzen den uharka ondoan. Ikusmin izugarria nabari da eta isiltasuna nagusi... Ezagutzea nahi izan dudanean zubia- ren gainean dena, garrasi bat eginik saltatzen du uretara, bildurik garenon txaloak jasorik bapatean. Patxi Kintela zen bera, gu baino zerbait helduagoa... Txuloa deituriko ur sakonak gelditu dute bere abantaila eta burua agertzen duenean ur azpitik, gutziona mirespena du... ◀

KAPITULUA ▶ Amuko ikuskizuna (45. orrialdea)

Udara aldera Amuko zubi zaharraren inguruan sortzen zen ikuskizunaren berri hitzez ematea zail egiten bada, askoz ere zailago egiten dela esan behar berari buruz idaztea. Urrestilla eta Errezil aldetik eta izugarritzko bihurtuneak igaro ondoren bertaratzen zen ur garbiaren inguruan gertatzen zen guztia. Zubira hurbiltzean, uharka bateko saltoa zuen zain, Enparango errotarako urak banatzen zituena bere garaian ubide baten bidez, lehenik ur gutxitxo- rekin, baina bere helmugara iristen zen bezala, urak nahiko sakon une handia hartzen zuela. Benetan une paregabea zen igerian gozatze-

ko eta asko eta asko biltzen ginen bertan, batzuk uharkara iritsi aurreko tokian, ura nahiko geldirik eta sakontasuna zuenez. Besteak berriz uharka igaro ondoren, urak egiten zuen saltoarekin jolastuz, aukeratuz ur sakonak edo txikiagoak. Hasi berrientzat, bestalde, nahikoa zela zirudien ubidea hasten zen tokia, garbi ikusten zela bertan hondoa ura benetan garbia eta gardena iristen zenez, une batzutan galtzen zuen itxura ederra, bata eta besteak hondoa astintzen genuenez hankekin.

Alderdi guztietan ikusten dira igerian direnen arropak zabaldurik lurrian, batez ere inguruan diren zuhaitz bakanen oinetan. Bere bideari jarraituz eta etengabe aldatuz den

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBITARI KLINIKA

Larrialdiak:
943 15 16 40

AZKOITIA

ERLOJU
KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar
DENDA

gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

LORE SORTAK
KOROIAK
Lore Apaingarriak

Etxeetarako
zerbitzua dugu

Tel. 943 81 51 87
Loiolabide, 25

ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES
ERAIKUNTZAK

kutxa

domusa

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Hitz gezidunak ▶

▶ Egilea: Luma

	* IZENA ▼		Asaba ▼		Intsektu mota ▼		Zatitan egin ▼		Errep., txori mota		
	Dirudunak		Zorua		Egokiera, parada		Sare itxura hartu				
	▶		▼		▼		▼				
	Gaitzetsi		▶								
Oso-oso garbiak											
Inprimatze lan	▼	Zakoteak	▶ ▼			Nori atzizkia		▶	Eakoak		
(Infin.) Erori		* DEITURA				Trakets					
▶		▼		Gutziz ase	▶	▼			▼		
				Lutezioa							
Arlo	▶			▼	Heldua	▶					
Hitzarmena					Konforme						
▶					▼	Sexu eme	▶		Röntgen	▶	
						Uranioa			Modua		
Bizkaieraz, bezala	▶				Dauka	▶	▼	500	▶	Erbioa	▶ ▼
Jentil					Harrapa ezan!			Masurioa		Kontso. bikoitza	
▶				▼			Arrastoa	▶ ▼		▼	
							Bokala				
Nikosia-koak	▶					▼					

* Azpeitiar pilotaria


Hizki zopa ▶ aurkitu beheko irudietan ageri diren Izarraitz auzoko baserri izenak



T	R	E	N	U	G	O	K	I	D	N	E
Z	I	G	A	O	R	R	A	L	E	U	N
E	L	U	B	G	I	R	O	A	K	I	R
Z	U	N	O	S	T	I	E	M	A	D	A
T	A	G	A	B	I	R	A	T	X	O	L
O	R	B	O	U	F	A	S	I	A	R	E
S	A	G	A	S	T	I	Z	A	B	A	L
I	Z	P	E	L	R	H	E	Z	I	N	A
T	K	I	K	E	I	M	U	T	A	D	R
N	U	E	B	A	P	A	X	R	O	A	H
A	N	Z	E	D	I	T	A	U	E	B	A
R	E	N	R	E	L	D	I	G	U	Z	T
S	O	L	I	B	I	D	N	E	M	E	H
U	R	A	I	X	T	I	N	A	R	T	A

Soluzioak ▶

HITZ GEZIDUNAK




HITZ GURUTZATUA



UZZARRIAREN MAITZEKO ARGAZKI LEHIAKETA

zein da hau?



Pako Aristi




Arantxa Etxeberria



Arantxa Etxeberria Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 84. irabazlea. **Zaldiko** dendako erosketa txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Arantxa Etxeberria —ezkerrean— eta Zaldikoko dendaria.

Zer da hau?



ERANTZUTEKO EPEA ▶

Ekainak 20 (asteazkena)

NORA BIDALI ▶

Perez Arregi plaza 1, behea

ZER DEN ADIERAZI ▶

ZURE IZENA / TELEFONOA ▶

IRABAZLEARI SARIA ▶

Jostaldi dendako erosketa txartela

PARTE HARTZEKO

BALDINTZA ▶

Uztarrarian bazkide izan behar da

 **ostadar optika**
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **PILDAIN**
Inmobiliaria
www.pildain.com

Harzubia 6, behea
Tl. 943812167 - Fax: 943150774
e-mail: inmobiliaria@pildain.com

LUBA

- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

Telefono zenbakiak ▶

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulategia	02 54 00
Anbul.-larrialdia	02 54 01
Eguneko zentroa	15 71 94
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara (Jendartea)	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	943 15 09 94

LARRIALDIAK

112

Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemaia)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Kaito Telebista	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

Habea	15 72 00 (138)
EA	81 00 11
PSE-EE	15 72 00
PP	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08

Uztarria Kultur Koor.	15 03 58
Kontseilua	943 59 12 00

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolakogay-lesbia.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	665 72 39 79 / 943 08 06 88

Farmaziak gauez ▶ ekaina

1-13-25

Alberdi (Azpeitia).
943 81 59 74

2-3-14-26-30-31

Garcia (Azpeitia).
943 81 12 74

11-16-17-28

Aranburu (Azpeitia).
943 81 13 50

12-29

Beristain (Azpeitia).
943 81 19 49

15-27

Jacome (Azpeitia).
943 08 02 58

4-9-10-22

Jaen (Azkoitia).
943 85 06 60

5-6-8-18-23-24

Azpiazu (Azkoitia).
943 85 29 89



LANBIDE, ENPLEGU ORIENTAZIOA.

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak Azpeitian duen bulegoan lan mundura bideratzeko laguntza eskaintzen dute. Sindikatu Zaharrean egoten dira, 08:00etatik 15:00etara. Aurrez adostu behar da hitzordua orientzailearekin, 943 47 24 26 zenbakira deituta.

Garraioa ▶ (autobusen ordutegia: www.uztarria.com/azpeitia/autobusak)

ALDALUR

85 27 18

EUSKO TREN

902 54 32 10

GUIPUZCOANA

85 11 59

PESA

21 26 99

PIPER ELK.

85 25 87

TAXIAK

81 13 07

Ateak zabalik ▶

UDALETXEA

▶ Asteguna:	09:00-13:30
▶ Larunbata:	09:00-13:00

UDALTZAINGOA

▶ Egun osoz irekita egoten da

ANBULATEGIA

▶ Egun osoz irekita egoten da

IGERILEKUA

▶ Astelehena:	14:00-21:00
▶ Beste astegunak:	07:00-21:00
▶ Larunbata:	09:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Igandea eta jai egunak:	09:00-13:00
▶ Kanpoko igerilekua (etik):	11:00-20:00

KIROLDEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 15:00-21:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00, 16:00-20:00

UDAL LIBURUTEGIA

▶ Astegunak:	10:00-13:00, 16:00-20:00
▶ Larunbata:	10:00-13:00
▶ Udan, Gabonetan:	08:30-13:30


ZAPO TXOKO

▶ Asteartea-ostirala:	17:00-20:30
▶ Larunbata:	16:00-20:30

ANGEL OIARZABAL ▶ urrestildarra

Arbola botatzean Txikuriri izterra hautsi zitzaion”

▶ Testuak: Maider Zendoia ▶ Argazkiak: Angel Oiarzabalek utzita



TXIKITAKO AMETSA.

“Txikitatik dut danborrarekiko zaletasuna”, dio Oiarzabalek. “Kalejiran ere irten izan dut; behin Pako Aristi dultzaina jotzen eta neroni danborrarekin atera ginen”. Musikarekiko zaletasuna aise nabari zaio- “Kriskitinak jotzen ere aritua naiz Antonio Aranaga *Auntxa*-ren ondoan”.

Angel Oiarzabalek jartzen dio ikurrina arbolari San Juan bezperan Urrestillan. Hamasei urte zituenetik hartu du parte ekainaren 23an arbolaren inguruan urrestildarrekin ospatzen duten ekitaldi berezian. **Noiztik Urrestillako San Juan jaietan ikurrina jartzen arbolari?**

Ikurrina jartzeko askatasuna dugunetik. 30 urtean, beraz, arbolari ikurrina jartzen nabil.

Inoiz zintzilikatu al duzu ikurrina ez den beste aldarririk?

Realak Ligan bigarren bukatu zuen urtean, arbolari Realeko bandera jartzea proposatu zigten. Ikurrina ez den beste aldarririk jartzen hasiko bagina, aldarririk bat baino gehiago jartzeko proposatuko ligukete. Beraz, festa batzordeak ikurrina bakarrik jartzea erabaki zuen.

Pasadizorik bai kontatzeko?

Behin, arbola ekartzen ari ginela, Guardi baserritik pasatu behar genuen eta arbolari bira ezin emanda geratu ginen. Baserriko nagusiak, Joxe Mari *Xarra*-k, ikur-luko ateak ireki zizkigun eta arbola ikur-luko barrutik pasatu genuen; ezkerrean ganadua eta eskuinean etxeko sukaldea genituen.

Zer arbola altxatzen duzue egun horretan plazan?

Lehen makala sartzen genuen, baina makala gastatu egin da eta orain lizarra sartzen dugu.

Segurtasun neurririk hartzen al duzue?

Azken urteotan txarrantxa jartzen dugu arbola puntan, jendea zuhaitz puntara igotzen hasi zelako. Gure gazte denboran, makalera igo eta hostoa kentzen zue-nari afaria ordaintzen genion.

Ezustekorik izan al duzu?

Arbola botatzean Inazito *Txikuri* pilotariari izterra hautsi zitzaion. Orduantxe pasatu zen orain arteko istripu bakarra. ◀

MIKEL BALENTZIAGA ▶ Kontseiluko kidea

“Zerbitzuetan eta enpresetan eragin behar da euskaran”

► Testua: **Maider Zendoia** ► Argazkia: **Enekoitz Esnaola**



Mikel Balentziaga Kontseiluko kidea Azpeitian, Sindikatu Zaharrean, maiatzaren 16an.

Mikel Balentziaga Kontseiluko kideak udalen Hizkuntza-politikaren Neurketan Azpeitiak lortutako emaitzak izan zituen hizpide maiatzaren 16an Sindikatu Zaharrean emandako hitzaldian. Azterketa horretan, Azpeitiak lehen postua lortu zuen, 6,82ko notarekin. Balentziaga aurretik egon zen Uztarriarekin, azterketaren emaitzez eta Azpeitiko Udalaren politika linguistikoaz hitz egiteko.

Neurketa egin aurretik, Azpeitia
zer emaitza lortuko zuela
aurreikusi zenuten?

Aurreikusita ez genuen ezer. Egia esan, bagenekien beharbada topiko batzuk hautsiko zirela eta kasu batzuetan hala izan da. Lehen postuetan dauden herriak ikusten baditugu, euskararen ezagutza maila altukoak direla ohartzen gara: %94,8koa da Azpeitian, ia euskaldunak ere kontuan hartuta. Politikak beti aplikatzen dira ezagutza mailaren arabera eta ez hainbeste hizkuntz eskubideen ikuspegiaren arabera. Jendeak ez du jotzen ezagutza baxu edo ertaineko lekuetan politika ausart eta eraginkorra egitera.

Zure ustez, Azpeitiko hizkuntz politika eraginkorra da edo oraindik asko dago egiteko?

Hainbat gauza araututa dago Azpeitian eta, gure datuen arabera, ikusten da buruan dela beste udalerrri batzuekin batera. Gauza asko ditu eginak eta normaltasunerantz jotzeko bidean da. Dena dela, gauza horiek guztiak beti baloratu behar dira Euskal Herriko ikuspegitik begiratuta. Norbaiten pentsa dezake Azpeitiak lortu duen nota oraindik ere urruti dagoela dagokionetik.

Kontuan izanda Azpeitian %94,8ko ezaqutza tasa dagoe-

la eta zuen ustez euskara lehenesten dela esateko 7ko nota behar dela, Azpeitiko Udalarik nota altuagoa al zegokion?

Euskara gaztelarekin orekatzatratzea, gutxiegi izan daiteke batzuetan. Azpeitiak bezalako ezagutza maila duten herrietan, neurri asko har daiteke euskara benetan nabarmentzeko.

EAEko Auzitegi Nagusiak Azpeitiko udal ordenantzak baliogabetzeko hartutako erabakiaren aurrean zein da zure iritzia?

Erabaki horrek erakutsi digu euskara nabarmentzeko ariketa horren aurrean nola jartzen diren epaileak. Lotsagarria da nabarmentze hutsarekin diskriminazioa egiten dela esatea. Guk gehiago ere eska dakiokela pentsatzen dugu, eta ez soilik nabarmentzea. Baina hori jada norberaren jarrearak definituko du. Argi dago Azpeitiko udal ordenantzetan ez dela inola ere gaztelera gutxiesiten; izatekotan, zertxobait nabarmentzen da euskara.

Diskriminazio positiboaren alde zaude, beraz.

Diskriminazio positiboa oso behetik has daiteke aplikatzen. Nire ustez, euskararen ezagutza maila %20koa denean ere, euskara nabarmentzeko ariketa horiek eman daitezke inor aztoratu gabe. Izan ere, leku horietan inon baino gehiago daude zokoratuak euskaldunaren eskubideak. Tira egin behar dugu euskara bere lekura ekartzeko. Esaterako, euskara ez baduzu lehenesten eta gaztelera jartzen baduzu gainetik, nabarmentze bat egiten ari zara, baina gaztelaren alde. Beti nabarmenduko duzu bata edo bestea. Oso euskarri gutxitan mantendu daiteke oreka. Baina nabarmentzea jo behar badugu, egin dezagun euskararekin. Zergatik ez?

Azpeitiar batek jaikitzen den unetik oheratu arte bizimodua euskaraz soilik egiteko aukerarik ba al du?

Guk lana hiru ildotan egiten dugu: norbanakoa, administra-



Balentiaga, herrian emandako hitzaldian.

“Azpeitiak 6,82ko nota ateratu du baina pentsa daiteke oraindik ere urruti dagoela dagokionetik”

“Udal ordenantzak baliogabetzeko erabakiak erakutsi du euskararekin nola jartzen diren epaileak”

zioa eta espazioa (elkarte, merkataria eta enpresa mundua) lantzen ditugu. Argi dago zutabe bakar batekin ezin dela normalizazioa lortu. Jo dezagun, Azpeitiak epe motzean jauzi on bat egin eta egoera inbidia garria lortzen duela. Hortik aurrera, Udalak badu bestelako lan zoragarria egiteko. Hasteko, inguruko enpresetan eta zerbitzuetan eragiteko dohain hori erabili behar du, neurri betearazleak hartuta. Adibidez, enpresa batek txosten bat egin behar duenean, txostena euskaraz helarazi beharko luke. Hortik hasi eta pentsa Udalak zer gaitasun izan dezakeen inguruan eragiteko. Nik uste dut horretan zentratu beharko lukeela oraintxe bertan Azpeitiak.

Beraz, oinarri on bat egon badago baina haratago joan beharko genuke...

Nik uste dut Udalak espazioan

eragin dezakeela, espazioak Udalean eragin dezakeen bezala edota norbanakoa udaletxean eta espazioan eragin dezakeen bezala. Hor komunikazio gorpil ikaragarria eman daiteke norbanako, espazio eta Udalaren arteko lankidetzan oinarrituta. Zutabe bakoitzak hartu behar du beste zutabeetan eragiteko konpromisoa. Adibidez, enpresek eta inguruko zerbitzuek hizkuntza eskubideak ez dituztela bermatzen ikusten bada edota maizegi urratzen badituzte, hor eragite lan bat badagokie gainerako zutabeei.

Azpeitiak senidetetasun hitzarmena sinatu zuen Hazparnekin 80ko hamarkadan. Hazparnek 0,21 puntu lortu ditu eta Azpeitiak 6,82. Euskararen ofizialtasunak ba al du horretan zerikusirik?

Argi dago Gipuzkoan bertan topa ditzakegula penagarri ateratu diren udalerriak. Hor dago Errenteria 3,11ko notarekin... Zer gertatu da hor? Hainbat kontu arautzen da, baina gero ez dira betetzen hartutako konpromisoak. Dena hankamotz uzten da. Udalerrri batzuk bide erdian geratu dira zenbait kontutan. Izan ere, hizkuntza ofiziala izanda ere, Oion edo Bizkaiako Ezkerraldea desastre hutsak dira hizkuntz politikari dagokionez. Leku horietan euskara ofiziala da, baina non uzten dituzte euskaldunak? Behin mutiko batek Barakaldon egindako

hausnarketak zer pentsatua eman zidan; ofizialtasunari dagokionez, esaten zuen Barakaldon dagoeneko 20.000 pertsona zenba daitezkeela euskaldun eta ia euskaldunen artean. Beraz, Barakaldon Bermeon baino euskaldun gehiago dago. Sarritan esaten dugu: “Han gutxi dira...”. Baina ez, gutxi ez dira.

Azaleratu diren arazoei jarraipenik egitea aurreikusi al duzue?

Guk ez diogu herri bati zer egin behar duen adierazi nahi. Hutsuneak non dauden zehaztu dugu, baina lekuan lekuko Udalarik, euskalgintzari eta eragileei dagokie lehentasunak zein diren adieraztea. Leku bakoitzean zer lehentasun markatu diren jakin nahiko genuke, zubi lana egiteko. Esaterako, Azpeitian dagoen kezka berbera badute Bergaran, eta Azpeitian ildo hori jorratzen duten neurriak hartu badituzte, ez legoke gaizki Bergarakoei horren berri ematea haiek lanean hasteko irizpide batzuk izateko. Sormen lan ikaragarria egin behar izaten da gauza bat nola landu asmatzeko. Ondorioz, neurketan posizio xumeagoetan dauden udalerrientzat izugarri emankorra izan daiteke herrien arteko zubi lan hori burutzea.

Azken batean, Azpeitiaren gaur egungo egoera zein da eta zer egin beharko litzateke aurrerantz?

Guk egindako galdetegiak ez du monografikorik egiten, udalerri bakoitzaren egoeraren bizkarrezurra tratatzen du. Ildo horretan, gaur egun Azpeitiaren parametro onargarrietan dagoela esan genezake; hau da, euskara lehenesteko bide horretan dagoela. Beraz, gauza gutxi zuzenduta gandi dezake ateratako nota. Hala ere, Udalak bere buruari begiratu behar dio hobetzeko, baina gero inguratzen duen gizarteari begiratu beharko lioke. Horrela, lan mundua euskalduntzeaz gain, aitzindari bilakatuko da beste udalerrientzat. ◀

Euskararen gorabeherak ▶




GORA. Historia eta errespetua uztartuta

Enparan Dorretxearen sarreran argi geratzen dira eraikinaren ezaugarri historikoak, baita herritarren euskaldunon hizkuntz eskubideekiko errespetua ere.



BEHERA. Ondare historikoa euskaratzeko unea

Azpeitiko udal garbitokian eraberritze lanak hasi dituzte. Une aproposa da eraikinaren aurrealdean gazteleraz idatzita dauden plakak euskaraz jartzeko.



Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko ▶

Behatokia 902 19 43 32

Elebide 012

www.euskararentelefonoa.com

www.euskadi.net/elebide

Zer egin? ▶



Gure herrien berezko izenak errespetatuak izan daitezen eragin. Esate baterako, 'Baiona' beharrean 'Bayonne' agertzen bada, zure kexa azaldu"

Euskal Herrian Euskaraz 'Bideak' eskuliburutik hartua; Uztartarian dago edonoren eskura

Bota lasai ▶

Urepeleko...

Azpeitiar adiskide batek bidali dit ondoren mezu hau, argazki eta guzti.

"Astesantuetan Urepele-
ra (Nafarroa Beherea) joan gintuan eta han ateratako argazki batzuk topatu ditiat gaur. Urepeleko udaletxeko tabloikoak dituk. Joan gintuan ikustera eta... udal informazio guztia euskaraz baino ez zagoan! Eta ez hori bakarrik, oso modu ulerterrazean ere bazegoelako. Gero esaten ditek euskarak gauza tekniko-administratiboetarako ez duela balio! Ez, behintzat, erdaraz sortu eta euskarara itzultzen denak! Hemen elebitasunak eta itzulketa sistemak ez dik balio administrazioan. Gakoa, euskaraz sortzean zago; bestela, gaizki behar diagu".

Urepelelari txango txiki bat Azpeititik ere zer?

▶ Enekoitz Esnaola

www.uztarria.com/hizkuntza
eskubideak-en emandako iritziak

Lasao

• egurrezko altzaria

Lasao Industrialdea z/g
Tel. 943151182



ALTZARI BEREZIAK

ZU ERE BEREZIA ZARELAKO


www.lasao.com

Euskal Tonbolak

bai

euskarari

kotxeak



asteburuak
Pirinioetan
8 lagunentzako

42" plasmak



afariak



auto-giro
hegaldiak




DVD-ak



TDT-ak



txartelak salgai
Gipuzkoa
osoko tabernetan



ZHE
ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

ZUMAIAKO
INSTITUTUA



HEZKUNTZA ESKAINTZA 2007-2008

HEZIKETA ZIKLOAK



GOI MAILAKOA

ADMINISTRAZIO ETA
FINANTZAK
2.000 ordu



AURREMATRIKULA

(sarbide zuzena)
ekainaren 1etik 7ra (biak barne)

MATRIKULA

(aldi arrunta)
ekainaren 29tik uztailaren 6ra (biak barne)

MATRIKULA

(aparteko aldia)
uztailaren 20tik 24ra (biak barne)

Aita-Mari Auzategia, 45 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) / Tel.: 943 86 08 09 - 943 86 23 20 Faxe: 943 86 08 10

e-maila: zuminst@euskalnet.net

www.zumaiahe.com